**EZTABAIDA: HAUTESKUNDEETAN BOZKATZEKO, ENA ERABILTZEAREN ALDEKOA ZARA? /7**

*"Bote handiko pilotak erabiltzen dira gaur egun, ikuskizunaren kaltetan. Lehen, pilota errebotera bidaltzea albiste izaten zen"*
JUAN MARI ARANTZETA /10


# Goienkaria

EGUBAKOITZA • 2001eko apirilaren 27a

II. urtea • 19. zenbakia • Doan Banatzekoa




**Goienka2a**
**Bailarako xakezaleek gogotik bizi dute fitxen arteko guda**

**HERRIZ HERRI**
**Leintz Gatzagako Sorgin kultura taldekoak Londresera /5**

**ARNALDO OTEGI**
*"Abertzaleok erabateko gehiengoa lortuko dugu"* **/9**

## Mankomunitateak 877 milioi pezetako aurrekontua onartu du

Debagoieneko Mankomunitateak 2001eko aurrekontuak onartu zituen eguaztenean. 877 milioiko aurrekontua izango du mankomunitateak eta 94 milioi inbertsioak egiteko erabiliko ditu.

Ohiko bilera Oñatiko Udaletxean egin zuten eta hantxe elkartu ziren gobernu bateratua osatzen duten 16 kideak: EAJ eta EAko bederatzi, EHko sei eta independente bakarra. Azken talde horiek abstenitu egin ziren aurrekontuak onartzerakoan. Inbertsio garrantzitsuenak Ingurumen Zerbitzuak dituen eremuetan eta hiltegian egingo dira. Izan ere, Zubillagako hiltegian zaharberritze lan batzuk egingo dituzte laster eta horretarako 10 milioi bideratuko dituzte.

Bestalde, Ingurumen Zerbitzuak egurra lantzeko hirugarren gune bat irekiko du gure bailaran. 34 milioiko kostua izango du eremu berriak. Epelen ere hainbat lan egingo dituzte eta Akeitik Beasainera zaborra eroateko kamioi berri bat erosiko dute. **/3**

## Lan-baldintza eskasak salatu dituzte San Juan de Diosen

Kale agerraldiak egiten dihardute Mondragoeko San Juan de Dios ospitaleko langileek. Oinarrizko soldatak igotzea eta lanorduak murriztea eskatu dute. Ez daude konforme Gipuzkoako klinika pribatuen hitzarmenarekin eta ezta patronalak emandako erantzunarekin ere. Mondragoeko langileekin batera, Tolosako eta Donostiako langileek ere protestak egiten dihardute, ELA, LAB eta CCOO sindikatuek deituta.

Soldaten kasuan, osasun publikoko langileek 205.000 pezeta kobratzen dute, eta osasun pribatukoek, aldiz, 118.000. Eta orduekin ere antzera gertatzen da: osasun publikoan 1.592 ordu egiten dituzte urtean, eta pribatuan 1.754. **/4**






**ASTEKO GAIA/OÑATIKO ARTZAIN ESKOLA**

# Artzaina izaten ere eskolan ikas daiteke

Oñatin, Arantzazurako bidean, Gomiztegi baserrian, paisaia eta inguru ederra daukan parajean dago Mendikoi artzain eskola, Espainiako Estatuan dagoen mota horretako eskola bakarra. Euskal Herrian, ordea, beste bat dago, Maule inguruan, eta dagoeneko 27 urte bete ditu. Oñatikoak, ordea, bost urte besterik ez ditu, baina dagoeneko ibilbide luzea egin du. **/2-3**



Mundu osoko hainbat ikaslek dihardute Oñatiko artzain eskolan. IKER BARANDIARAN


KIROLA/13 • KULTURA/14-15 • NON ZER/16-17 • BERRI-ZAKUA/19 • DENBORA-PASA/21 • TELEBISTA/22

GOIENKARIA
Egubakoitza / 2001eko apirilaren 27a

# Artzain eskola

## Espainiako Estatu osoan ez dago besterik, eta Iparraldean bakarra

IKER BARANDIARAN

Oñatin, Arantzazurako bidean, Gomiztegi baserrian, paisaia eta inguru ederra daukan parajean dago Mendikoi artzain eskola, Espainiako Estatuan dagoen mota horretako eskola bakarra. Euskal Herrian, ordea, beste bat dago, Maule inguruan, eta dagoeneko 27 urte bete ditu.

Oñatikoak, ordea, bost urte besterik ez ditu, baina dagoeneko ibilbide luzea egin du. Franko hil onodoren, artzainez osatutako zenbait elkarte eratu ziren, eta horietako batzuk bertako latxa ardiaren hobekuntza ahalbideratu nahi zuten. Gerora, halako batzar batean artzainak hezitzeko eskola baten beharra ikusi zuten, eta Nikolas Segurolak Gomiztegi baserria eskaini zuen. Dena lotzeko urte batzuk igaro ziren, baina azkenean, Mendikoi erakundearen laguntzaz 90eko hamarkada erdialdean eskola zabaldu zuten. “Espainiako Estatuan badaude nekazaritza eskola batzuk artzaintzaren alor batzuk lantzen dituztenak, baina ez osoki. Guk Maulekoa oinarri hartu genuen eta haiengandik asko ikasi dugu”, azaldu zigun Nikolas Segurolak. Horrez gain, argi zuten ez zela ohiko eskola izango. “Artaldearen alboan, esplotazioan bertan kokatuta egon behar zuela argi geneukan, eta gazteek ikasi, ikutuz eta eginez egin behar zutela”, azpimarratu zuen Batis Otaegik.

Eskolako ikasturteek irailean hasi eta martxo arte irauten dute, teoriako eta praktikako irakaspenak barne, betiere biak uztartuz. “Esaterako, elikaduraz berba egiten bagabiltza, artaldera jotzen dugu praktika batzuk egitera, eta gauza bera jezteko makina erabiltzen ikasteko orduan”.

Orain arte egindako lau ikasturteetan 50 bat gazte igaro dira Gomiztegi baserritik; horien artean euskaldunak, Espainiako Estatuko hainbat herrialdetakoak eta baita hegoamerikarrak ere. Berez, eskolak gaztelaniaz ematen dituzte, batez ere, ikasturtero euskaraz ez dakien norbait agertzen delako, nahiz eta irakasle ia guztiek euskaraz ondo jakin. “Hala ere, inork irakasleari zerbait euskaraz galdetzen badio, hark ere euskaraz erantzuten dio. Era berean, ikasturte amaieran prestatu beharreko



IKER BARANDIARAN

### Mundu osoko artzainak

Arantzazuko Gomiztegi baserrian dagoen Mendikoi artzain eskola Espainiako Estatuko bakarra da, eta Euskal Herrian beste bat besterik ez dago, Maulen dagoena hain justu ere. Eskolan egin diren lau ikasturteetan, euskaldunez gain, madrildarrak, katalanak, guadalajararrak zein Hego Amerikako ikasle gazteak etorri izan dira: azken horien artean, argentinarrak eta txiletarrak gehienak. Orain arte egin diren lau ikasturteetan 50 bat gazte igaro dira eskolatik, eta horietako kopuru polit bat neskek osatu dute.

*“Euskaldunez gainera, Espainiako Estatutik eta Hego Amerikatik ere etortzen dira ikastera”*



I.B.

### Mendikoik babestutako esplotazioa

Nikolas Segurola Gomiztegi baserriaren, hango artaldearen eta esplotazioaren jabea da. Artzainen familiakoa izanik, bera ere horretan hasi eta Arantzazu aldera hurbildu zen. Franko hil ondoren, latxa ardien egoera hobetzeko elkarteak sortzeko buru-belarri jardun zuen; halaber, eskola antolatzeko asmoaren berri jakin zuenean, bere esplotazioa eskaini zuen. Mendikoi erakundearen finantzazioari esker, duela laupabost urte eskola ireki eta artzaintzan jakitun Batis Otaegirekin ekimen berezi honen zenbait ardura elkarbanatu zituen.

*“Nikolas Segurolak eskola jartzeko esplotazioa eskaini eta Mendikoik finantzatu zuen”*



### Heziketako ikastaro laburrak

Mendikoi artzain eskolan gazteei zuzenduta urtero, irailetik martxora, egiten den ikasturteaz gain, urtean artzain heldu eta gazteendako beste hainbat ikastaro egiten dira. Horien artean, ardien jezte mekanikoa, ile-moztea, gaztagintza, ardi-zezinak egitea, arkume, ardi eta ardikien merkaturatzea, ekoizpen ekologikoa eta beste asko. “Etortzen direnean, gazta ona egiteaz gain, beste guztiaren gainekoa dakitela uste dute artzainek, baina berehala konturatzen dira heziketa hobetzea komeni zaiela”, dio Segurolak.

*“Urte osoan ikastaroak daude artzain heldu eta gazteen heziketari zuzenduta”*

**OÑATI** ZIRI-TOUR PROGRAMA

# Kepa Aranburu eta Lourdes Romero

## *"Ziri-Tour programarekin, jendeak aisialdia era ludiko batean pasatzea da gure helburua"*

AINTZANE IRIZAR

**Giza Kultur Animazioa ikasten dihardute Oñatiko bi gazte hauek. Orain, ikasturte amaierari begira, praktikak egiten dihardute Oñatiko Gaztelekuan, eta Ziri-Tour programa abian jarri dute. Ekimena, apirilaren 30etik maiatzaren 26ra arte izango da.**


Kepa eta Lourdes, Ziri-Tourreko arduradunak. AINTZANE IRIZAR

**Zein da kultura animatzaile baten zeregina?**
Gizatalde batean lan egitea, aisialdia antolatzeko, baina kulturaren ikuspegitik. Nolabait esatearren, denbora librea antolatzea kultura ekitaldi eta ekintzekin. Lan egin daiteke gazteen arloan, hirugarren adinekoekin, umeekin, atzeratuekin...

**Zer da Ziri-Tour?**
Ikasketetan aisialdiaren antolaketa landu dugu, batik bat, eta horren barruan egin ditugu praktika hauek. Gazteen arloa aukeratu dugu, eta herrian Gaztelekua izanda, aukera horri heldu genion. Gaztelekuan bertan lan egiten jardun dugu, egunean lau bat orduz, eta aurrez egindako proiektua landu. Hasierako proiektua zehaztu, eta Ziri Tour programa sortu dugu.

**Zein helburu ditu programa horrek?**
Era horretako programa edo proiektu bat egiteko, helburu batzuk finkatu ditugu aldez aurretik, ez dugu programazioa geure gustuen arabera egin. Orokorrean, jendeak aisialdian ondo pasatzea, aisialdia era ludiko batean pasatzea izango litzateke gure helburua. Eta horri lotuta, ekintza bakoitza erabakitzen joan gara, adin tarte ezberdinetako jendearengan pentsatuz, eta gustu ezberdinak kontuan hartuz. Ahalik eta gazte gehienengana iritsi nahi dugu, eta aisialdirako zerbait ezberdina eskaintzea.

**Zein egitarau prestatu duzue?**
Joan zen zapatuan film bat eskaini genuen; guztira, Stanley Kubricken hiru eskainiko ditugu. Bi hitzaldi ere antolatu ditugu: Kalamuari buruzkoa eta nerabeendako sexologian gainekoa. Baita txontxongilo tailer bat, kontzertu bat eta argazki erakusketa bat ere. Azkenik, gazte batzarra osatzeko deialdia ere egin dugu, ikusten dugulako, herrian, gaztez osatutako gero eta talde gehiago dagoela, eta elkarren arteko harremana beharrezkoa dela.

**BERGARA** ARGITALPENA

# Martzial Agirre eskultorearen bizitza eta obra liburu batean

*Haren monografia kritikoa egin nahi du udalak*

MONIKA BELASTEGI

Martzial Agirre, XIX. mendeko artista bergarararren bizitza eta obra bildu eta monografia bat kaleratzeko bidean da udala.

Monografiak 75-100 orri inguru izango ditu, eta bi atal nagusi: haren bizitza eta obra. Liburuaren helburu nagusia da, gainera, aipatutako bi atalak sakon aztertu eta lan kritiko zehatza izatea. Izan ere, nahiz eta XIX. mendeko eskultore oso garrantzitsua izan, ez dago Agirreri buruzko azterketa sakonik.

Monografia egiteko ideia bi historialarik aurkeztu zioten udalari. Haien ustez, argitaratu gabeko informazio asko eta ugari dago eta Agirreren gainean. Dagoeneko aurkeztu dute liburuaren proiektua, eta Gobernu Batzordeak onartu egin du. Urrian originala aurkeztuko dute, eta proiektuan aurrez ikusitakoarekin bat badator, monografia erosi egingo die udalak. Ondoren argitara emango luke.


Martzial Agirre eskultorea.

**ABERRI EGUNAREN INGURUAN**
EHk gogor salatu du EAJ-EA Aberri Egunean izandako gertakari batengatik. Ekitaldian irakurri beharreko dokumentua adostu ostean, EAJko kide batek beste dokumentu bat irakurri zuen udaletxeko balkoian. EHk aldaketaren berri eman ez izana leporatu dio EAJ-EAri, eta haien jokabidea salatu.

**ELGETA** DANBORRADA

# Danborradako saria Maximo Arantzetarendako

IBAN ARANTZABAL

Maiatzaren 5ean hasiko dituzte entseguak, arratsaldeko 5etan. Antolatzaileek ez dute gura ekainera arte jardutea entseguekin, eta eguraldi eskasa dagoen bitartean ikasi gura dituzte pieza guztiak. Tolosako Martxa, Debakoa eta Polka II ikasiko dituzte, berri-berri, Alex Arantzabal zuzendariaren aginduetara. Iaz beste lagunek eman dute izena, eta danborrada egunean Espaloian egingo duten afarian 180 lagun batuko dira. Giro mundiala espero da, beraz. Aurtengo berritasuna danborradako saria ematea izango da, eta hiru hautagai izan badira ere, saria Maximo Arantzetak jasoko du.


Debagoieneko Kirol Txartel Mankomunatua
2001eko maiatzaren 1etik ekainaren 30a bitartean, Aretxabaleta, Arrasate, Bergara, eta Oñatiko kirol zerbitzuetako abonatuek aukera izango duzue lau herriotako kirol instalazioetara doan sartzeko.
DEBAGOIENEKO MANKOMUNITATEA
KIROL ZERBITZUAK

ARAMAIO | UR ZERBITZUA

# Ur biltegitik Ibarrara ura eroaten duen hodia aldatu egindo du udalak

UBANE MADERA

Ohiko udalbatzarra egin zuen udalak eguaztenean. Bederatzi gai zituzten aurrez ikusita, aipagarrienak, herrian egin beharreko lanen gainekoak.

Ur biltegitik herri erdiraino doan hodia aldatu egin behar du udalak; orain dagoena zementuzkoa da, eta zaharkituta gerata da. Hodi horren ordez, udalak metalezko bat jarriko du. Gainera, lehengoa baino apurtxo bat zabalagoa izango da: 125 mm-tik 150era igaroko da.

Hodi hori kilometro bat luze da, eta esan bezala, herri erdira jaisten da. Baina, bide gehiena ortuetatik egiten duenez, udalak ez du uste auzotarrei eragozpen handirik eragingo dienik. Gainera, lanek iraun bitartean, kanposantupean dagoen ur biltegia erabiliko du herritarrei ura eroateko. Hortaz, alde horretatik ere arazo handiegirik ez sortaraztea espero du.

**KULTURA ETXEA**

Hainbat gairen artean, kultura etxearen ekipamendua ere aztertu zuten udalbatzarrean. Hamahiru milioi pezeta pasatxo onartu ditu udalak altzariak erosteko: ordenagailuak, aulkiak, mahaiak eta abar. Horrez gain, beste bost milioi emango ditu agertokirako. Oraindik ez ditu lanok adjudikatu, baina jadanik bost eskaera jaso ditu.

Halaber, kalean ipintzen diren kartelak ere hizpide izan ziren batzarrean. Izan ere, duela urtebete EAJ-EAren eta EHren artean sinatutako hitzarmena bertan behera geratu da. Hitzarmenaren arabera, udalak ipinitako panel batzuk erabiliko zituzten kalerako kartelak eta iragarkiak jartzeko. Hala, herriko paretak txukun gordeko ziren.

Baina, azkenaldian paneletatik kanpo ipinitako kartelak agertu dira eta, ondorioz, EAJ-EAk eta EHk hitzarmena desegin dute.

**Zertzelada**

**Ur hodia aldatzeko lanek iraun bitartean, udalak kanposantupeko ur biltegia erabiliko du herritarrei ura eroateko. Hala, eragozpenik ez eragitea espero du**

ARRASATE | ARAZOAK SAN JUAN DE DIOS OSPITALEAN

# Lan baldintza kaskarrak salatzen dihardute San Juan de Diosen

*Opor aurretik hasi ziren protestak egiten ospitaleko langileak*

UBANE MADERA

Mobilizazioak egiten dihardute Mondragoeko San Juan de Dios ospitaleko langileek. Oraingo astean, egunero ordubetez eten dute euren jarduna, patiora irten eta protesta egiteko.

Oinarrizko soldatak igotzea eta lanorduak murriztea eskatu dute San Juan de Dios ospitaleko langileek. Ez daude konforme Gipuzkoako klinika pribatuen hitzarmenarekin ezta patronalak emandako erantzunarekin ere. Mondragoeko langileekin batera, Tolosako eta Donostiako langileek ere protestak egiten dihardute, ELA, LAB eta CCOO sindikatuek deituta.

**162 GEHIAGO**

Soldaten kasuan, osasun publikoko langileek 205.000 pezeta kobratzen dute, eta osasun pribatukoek, aldiz, 118.000. Hortaz, 87.000 pezetako aldea dago bien artean. Eta orduekin ere antzera gertatzen da: osasun publikoan 1.592 ordu egiten dituzte urtean, eta pribatuan 1.754; guztira, 162 ordu gehiago egiten dituzte. Soldata eta lanorduak parekatzea eskatzen dute.



San Juan de Diosko langileak oraingo asteko protestaldian. UBANE MADERA

Horrez gain, ELA sindikatuak adierazitakoaren arabera, San Juan de Dios ospitaleko langileen kasuan, bestelako gertaera batzuk ere salatu behar dira: esaterako, orain dela bi urte, soldatak blokeatu egin zizkieten langileei; enpresak dirurik ez zuela esan zuen, baina ospitalea goitik behera berritzeko dirua bazuela salatu du ELAk. Lan ordutegiarekin ere ez daude konforme. Langile batzuek 09:00etatik 13:00etara eta 19:00etatik aurrera egiten ei dute lan, bai aste barruan zein asteburuan ere.

Hori guztia salatzeko dihardute mobilizazioak egiten, eta sindikatuek adierazitakoaren arabera, langileen %85 irten dira kalera. Bestalde, patronalaren aldetik inolako erantzunik jaso ez izana ere salatu dute sindikatuek. Joan den apirilaren 1ean desegin zen patronalaren eta sindikatuen arteko negoziazio-mahaia, eta ordutik hona ez dute berriro berbarik egin.

ARETXABALETA | KURTZEBARRI ESKOLAKOAK INGALATERRARA

# Kurtzebarri eskolako ikasleak Erresuma Batura bidaian

*Astebetez ikasleak hango familiekin biziko dira*

AMAGOIA LASAGABASTER

Oraingo domekan abiatuko dira Kurtzebarri eskolako 16 ikasle Erresuma Batura. Ingalaterrako Sheffield hirian izango dira astebetez. Bikoteka, ingelesen kultura gertu-gertutik ezagutzeko helburuaz, hango familiekin biziko dira. Horretaz gain, eskolan ikasitako ingelesa praktikan jartzeko aukera izango dute DBHko ikasleek. Gainontzeko denbora, turismo apur bat eginez pasatuko dute. Sheffield, York hiria, museoak, lorategi botanikoak eta beste leku asko bisitatuko dituzte.

Kurtzebarrikoak orain bi urte ere joan ziren aurrenekoz, eta irakasleen esanetan oso esperientzia aberasgarria izan zen ikasleendako. Erresuma Batutik maiatzaren 6an bueltatuko dira.


Orain bi urte Kurtzebarri eskolakoek Ingalaterrara egindako bidaian. A. LASAGABASTER

LEINTZ GATZAGA

# Sorgin kultura taldeko 25 bat lagun Londresera

ENEKO AZKARATE

Sorgin kultura taldekoak Londresera ateratzekoak ziren gaur. Hainbatero antolatzen dituzte irteerak, eta oraingoan, asteburu luzea denez, Erresuma Batura joango dira martitzenean itzultzeko. 25 bat lagun joango dira. Sorgin Kultura taldean 24 urtetik 84 urtera arteko andrazko eta gizonezkoak batzen dira. Datorren astean Ingalaterran bizitako gorabeherak kontatuko dizkigute.

LENIZ MOTOR
JUAN M. ZUAZUBISKAR
· NEKAZARITZAKO ETA BASOGINTZAKO MAKINERIA.
· LOREZAINTZA.


Gipuzkoa etorbidea, 9
ARRASATE
Tel.: 943 79 11 78
VIKING STIHL

Erdiko kale, 32
ARRASATE
Tel.: 943 79 16 12
Gizonak
Emakumeak
LUKO
JANTZIAK
Ibai-arteren bazkide

GOIENKARIA
Egubakoitza / 2001eko apirilaren 27a

## Zabalik


ELENA LAKA

# Udaberriko promesak

**Beti parekatu izan da udaberria promes garaiarekin. Jakina da naturak urtero eskaintzen digun pizkunde horrek esperantza eta bizitza berritzeko grina sortzen digula. Udaberriko goiz fresko eta argitsuek estreinatzeko egunak dirudite, egun berriak, garbiak, aldatzeko itxaropena iragartzen dute. Zenbat promes, zenbat agindu, zenbat ilusio egun distiratsu hauetan? Udaberrian ezkontzen dira gazteak, apirilean aldarrikatu zen Espainiako Bigarren Errepublika, udaberrian baita ere Portugaleko Klabelinen Iraultza, maiatzean 1968a. A! Eta udaberrian gorputza berritzeko eskaintzak: "Bost kilo gutxiago aste betean", "ipurdi tentea hamar egunean".**

**Promesak, promesak, garai honetan jaio eta handik gutxira zapuzten direnak. Edo, okerrago oraindik, hasieratik konplitu ezinezkoak direnak, udako euforia hutsalera eta udazkeneko depresiora eramango gaituztenak. Etorriko da, hala ere, hurrengo urtean udaberri berri bat, beste garai berri bat, eta promesak, berriro ere, errepikatu egingo dira, guztiok sinetsiko dugu berriro guztia posible dela. Inozook!**

**Aurtengoan, udaberriak hauteskunde-kanpaina ere ekarri digu, aro egokia promesak egiteko. Eta hitzak, hitzak aldaketa gure esku dagoela sinets dezagun, bizitza berria hortxe dugula pentsa dezagun. Baina, ez digute esango epaitegiak dibortzio-eskariz beteta daudela, Errepublikaren ondoren guda etorri zela, aurten ere hondartzan zelulitisa erakutsiko dugula. Ilusioz bete nahi gaituzte, udaberriko sukarra berriro ere. Maiatzaren 14an ez gara nazio askea izango.**

## Gutunak

# Telefono mugikorrak eta osasuna

Telefono mugikorrak erabiltzen dituztenen kopurua hainbeste haztearen ondorioz, eta horri buruzko araudirik ez egotearen ondorioz, telefono mugikorren konpainiek neurrigabeko lasterketari ekin diote, antena errepikatzaileak jartzearren.

Perretxikoak bezala ugaritu dira antenak gure hiri eta baserri-inguruetako paisaietan, eta horrek kezka sortu du zenbait herritarrengan, osasunerako izan ditzakeen ondorioei dagokienez. Horrela bada, herri baten baino gehiagotan jarri dituzte salaketak telefono mugikorren antenek sintoma kaltegarriak eragin dituztela eta.

Txosten ofizial gehienek esaten dute telefono mugikorren erabilerak eta horien antenek sortzen duten erradiazioa ez dela kaltegarria pertsonentzat, nahiz eta azterketak eta ikerketak egitea gomendatzen duten. Bestalde, asko dira hitz ofizialekin bat ez datozen lanak eta adierazpenak ere.

Esan behar da, dena den, gaia nahiko berria denez, oraindik ez dagoela txosten zientifiko eztabaidaezinik, hau da, telefono mugikorren erradiazioak gizakiaren osasunerako kaltegarriak direla berresten edo baztertzen duenik.

Honako hauek dira telefono mugikorrak kaltegarriak ez direla zalantzan jartzen duten ebidentzia batzuk:

• Estatu Batuetan derrigorrezkoa da telefono mugikorretan tabakoaren antzeko etiketa bat jartzea. 2000ko abuztutik, modelo berri bakoitzak, emititzen duen erradiazio maila adierazten du, telefono mugikor bakoitzaren arriskuaz informatzeko eta, tabako industrien kasuan bezala, gerta daitezkeen milioietako erreklamazioak saihesteko.

• Ingurumenaren Babeserako agentzia estatubatuarrak, 1999ko txosten batean, eremu elektromagnetikoak B-2 mailako kartzinogenotzat jotzen ditu, hau da, balizko kartzinogenotzat.

• Lloyds Britanica aseguru etxeak uko egiten dio telefono mugikorren osasun arriskuak aseguratzeari, horren arrisku ekonomikoa zehazterik ez dagoelako.

• Britainia Handiko sindikatuek adierazi dute, afiliatu bat bera ere ezin dela behartu lanean telefono mugikorra erabiltzera, berori luzaroan eta egunero erabiltzeak dituen arriskuengatik.

• Gobernu ingelesak agindutako STWART txostenak argi esaten du, telefono mugikorren antenak bizitoki, ospitale, geriatriko eta ikastetxeetatik urrun jarri behar direla.

Bestalde, badira telefono mugikorrek osasunerako izan ditzaketen arriskuak, jarraian aipatuko ditudanak:

Txosten zientifiko ugarik ohartarazten dute poluzio elektromagnetikoaren arriskuez eta, bereziki, telefono mugikorretan erabiltzen diren mikrouhinez.

Txosten horien arabera, epe laburrerako eragin neurofisiologikoek lotura zuzena dute mugikorren erabilera handiagoarekin eta antenen hurbiltasunarekin.

Hauek dira eragin horietako batzuk: estresa handitzea; buruko uhinen eta beste bioerritmo batzuen alterazioa; memoria galerak; burua zuri geratzea; buruko min iraunkorra; insomnioa eta lo-arazoak; belarrietan zaratak eta burrunba; zorabioak eta bertigoa; palpitazioak eta erritmo kardiakoaren alterazioak; odol presioa handitzea, eta medikuntzak distonia neurobegetatibotzat jotzen dituen beste hainbat ondoez.

Hobe da prebenitzea sendatzea baino. Beraz, aplika dezagun prebentzioaren printzipioa

Batzuen eta besteen irizpideak hain ezberdinak izanda, arrazoizko gauza bakarra da enpresa boteretsu gutxi batzuen interes ekonomikoei barik, hiritarren osasunari ematea lehentasuna. Izan ere, urtetan zehar beste gauza batzuekin gertatu zaiguna kontuan hartzekoa da, hau da, hasieran kaltegarritzat jotzen ez ziren substantzia asko gero osasungaitzak direla ikusi da: amiantoa, hasieran kaltegarriak ez ziren baina gero debekatu egin diren pestizida asko, behi belarjaleak haragi pentsuekin elikatzea, malformazio larriak eragin dituzten botikak...

Esku artean dugun kasu honetan, telefono mugikorraren teknologien erabileran prebentziozko jarrera izatea da gomendagarriena, horiek osasunean izan ditzaketen eraginei buruz informazio zientifiko gehiago eta sakonagoa izan artean.

Honenbestez, honako hauek dira administrazioari eskatzekoak:

1. Telefonia mugikorrak osasunari egiten dion kalteari buruzko ikerketa programak egin ditzala.

2. Erradiazio mapa bat egin dezala, telefonia sarearen garapena osasun irizpideak kontuan hartuta garatzeko.

3. Haurtzaindegi, eskola, ospitale eta osasun zentroen inguruan antena errepikatzailerik ez jartzeko, horietan biltzen direlako herritar sentikorrenak.

4. Segurtasun distantziak ezar ditzala, nazioarteko araudi prebentiboei jarraituz. Adibidez, Espainiar Estatuan gure leihoetatik 5 metrora jar daitezke antenak, eta Australian gizakiak dauden lekuetatik 500 metrora.

JAVIER ABALDE GALPARSORO
Ekologistak Martxan taldeko kidea

# Errespetua euskal aberriari

Honela zioen EAJ-EAk Aberri Egunean irakurri zuen testuaren izenburuak. Errespetua gertu daukagunagatik hasten dela uste dugu EHko zinegotziok. Hau izan zen gertatutakoa: pare bat elkarrizketa izan ondoren, apirilaren 9an Aberri Egun bateratua egiteko gonbita jaso genuen. Irakurriko zen manifestua zein izango zen galdetu ondoren, kopia bat jaso, aztertu eta ados geundenez bertan geundenok azalduko ginela eta guztiok batera Udalbiltzaren izenean ospatuko genuela eguna erabaki genuen. Udala dantzari, txistulari eta bandoaz arduratuko zen, eta guk, berriz, deia zabalduko genuen. Guk gure lanak bete genituen, beraiek erdizka, bandorik ez genuen irakurri eta. Gu pozik, pauso txikia bazen ere, gure herrian behintzat abertzaleok Aberri Egun bateratu bat izango genuelako. Inuzenteak.

Hamabietan zen bilkura, hamar bat minutu lehenago udaletxera joan eta bertan zeudenekin kontu kontari jardun, EAJ-EAko hiru zinegotzi bertan ziren, eta hamabiak jotzean balkoira atera ginen. Ikurrina jaso eta manifestua irakurtzen hasi zen Koldo Pereira, EAJko zinegotzia, gu, zur eta lur, ez zen gauza izan ezer aipatzeko, ez guri, ezta bertan ziren beste gobernukideei ere. Beraien manifestua entzun ondoren, hura ez zela adostutakoa azaldu eta denona zen bestea irakurri genuen. Ekitaldia bukatu eta azalpena eskatu genuen, erantzuna honako hau: "atzo jaso nuen".

Hau da zuek eskatzen duzuen errespetua? Non da hain ozenki aldarrikatzen duzuen elkarrizketa?

Benetan, hau ez genuen espero, hau ez da zintzoa izatea.

MARTIN GURIDI ETA JOLANDA JUARISTI
Bergarako EHko zinegotziak

## Olatz eta Patxi

MIKEL ARROIABE



## Eztabaida

Hauteskundeei, berez, zeresana ematen duten arren, eztabaidarako beste kontu bat erantsi zaie oraingoan: euskal karneta. Espainiakoaren ordez euskalduna erabiltzeko kanpaina bultzatu zuten Udalbiltzatik. Madrilen, ordea, argi gorria piztu zuten eta Espainiako fiskal nagusiak ENA legez kanpokotzat jo zuen. Horrenbestez, maiatzaren 13an botoa emateko, inork ezin izango du erabili euskal karneta. Jaurlaritzako Barne Sailak, bestalde, legea betetzen ez duenari, hau da, ENArekin bozkatzea uzten duenari, isuna jarriko diola agindu du. Batzuek, hala ere, jaramonik ez egin eta euskal karneta erabiliko dutela esan dute.

# Hauteskundeetan bozkatzeko ENA erabiltzearen aldekoa zara?

## Euskal Herriko Naziotasun Aitormen Agiriari bai



AITTOR ARANZABAL
EH

Euskal Herriak jasaten duen eraso, zatiketa eta inposizioan kokatu behar dugu euskal herritarrok izanik Espaniako edo Frantziako estatuen nortasun agiria edukitzea. Bi estatu horiek etengabe urratzen dituzte gure herriaren eskubide guztiak. Zapalkuntza egoera honetatik eta aurre egiteko xedearekin sortu dira gure herria bizi irauteko ekimen ugari. *Bai Euskal Herriari* herri ekimena, ENA elkartea, Udalbiltza, guztiak ari dira euskal herritartasun agiria egitearen alde.

Desobedientzia zibila oinarri duen borroka honek helburu bakarra du: herri honen eskubideen defentsa eta gauzapen praktikoa bideratzea. Gogoratu beharrean nago Joxemi Zumalabe elkarteko zenbait kidek, bide hau jorratzeagatik, espetxean jarraitzen dutela, beraz, Espainiako Estatuak argi azaldu du larrutik ordaintzea egingo duela honelako ekimen guztiak.

Egun 18.000 lagunok omen dugu ENA agiri sinbolikoa, baina etorkizunean eta Udalbiltzak abian jarri duen ekimenari esker, milaka herritarrek agiri ofiziala edukitzeko aukera izango dugu. Ni, bitartean, eta aukera hau gauzatzeko zain, ENArekin bozkatzen saiatuko naiz, eragozpen gehiegi jarriz gero, espainiar agiria atera eta botoa emango dut (kontraesanak kontraesan), hauteskunde hauetan inoiz baino garrantzitsuagoa delako Euskal Herria eraikitzen diharduen aukera politiko bakarra bozkatzea. Ez dadila boto bat bera ere galdu, ondoren eraikuntza nazionalaren bidetik, herri gisa dagozkigun eskubideak gauzatzen jarraituko dugu.

## Bihotza bero eta burua hotz



PELLO
URIZAR
EA

Azken urteetan espainolismoak euskal abertzaletasunaren aurka daraman kanpainaren barruan, batez ere euskal nortasuna islatzen duen edozeren aurka ari da; ikustea besterik ez dago euskararen aurka egiten ari direna. Kanpaina honen barruan koka dezakegu Euskal Nortasun Agiriaren aurkako erasoa, azken batean ENAk euskaldunon nortasuna dokumentu baten finkatzen du eta hori jasangaitza egiten zaie espainolistei. Horregatik, eta ikusirik Euskadiko epaile batek jadanik ENA baliagarritzat eman duela pertsona baten identifikazioa egiteko, Estatuko Fiskal Orokorrak maiatzaren 13ko hauteskundeetarako ENA baliogabetzeko pausoak eman ditu.

Erabaki horri kasurik ez egitea aukeratu dezakegu, ENA aurkeztea bozkatzeko orduan eta hauteskunde mahaiko presidentearen eskutan uztea onartu ala ez. Baina, kontuan edukirik onartuz gero isun garrantzitsu bat jasoko duela.

Hala ere, ez da hori garrantzitsuena, presidente batek baino gehiagok erabaki dezake Estatuko Fiskal Orokorraren erabakiaren aurrean intsumiso egitea eta ENA onartzea; nik egingo nuke. Benetan garrantzitsua mahai horretako botoak inpugnatuak gerta daitezkeela da, eta momentu honetan, espainolismoaren ofentsibaren aurrean ezin dugu boto abertzale bat ere galdu. Bihotzak ENArekin bozkatzeko eskatuko digu, baina burua hotz eduki behar dugu eta ez utzi botorik galtzen. "Belarrittero" Ajuria Enera heltzen bada, ENA eta euskal nortasuna folklore hutsean gera daitezke.

## Egunkarietatik jasoa

### Zertarako daukagu Barne Saila?

(...) Maiatzaren 13ko hauteskundeetan ENArekin boza ematen utziko duten mahaiburuei, Gasteizko Barne Sailak isuna edo zigorra jarriko die. Ez nolanahikoa gainera. Kartzela zigorra, 7 eta 15 asteburu bitartekoa, edo 300.000 pezeta arteko isuna.

(...) Zergatik, buruzagi abertzaleek agertu jokabideari muzin eginez, horren era nabarmenean adierazi zer egingo duen M-13an mahaiburuekin? Noren aurrean antzeztu beharra zegoen subiranotasun ikur xume hori, ENA agiria, zapuzteko borondate trinkoa? Bistan da Gasteizko Gobernua osatzeko EAJk hobesten duen koalizio-kide desiratuak, PSE-EEk, baiezkoa eman aurretik horrelako errenuntzio asko ikusi nahi dituela. Atzetik datozkeen errenuntzio horietako lehena ote da Barne Sailaren jarrera? Denborak, eta aurki izan beharko du, argituko du hipotesi horrek oinarririk baduen. Analista askoren arabera, EAJ-EA koalizioak EHren boto tipologia bat bereganatzeko ahalegina egingo du M-13ko kanpainan. Barne Sailak, baina, aliatu hobeak topatu beharko ditu horretarako.

MARTXELO OTAMENDI
Euskaldunon Egunkaria 2001-04-22

**DATORREN ASTEKO EZTABAIDAGAIA** — Iritzia emateko: iritzia@goiena.com

*Zer deritzozu eutanasia aktiboari?*

## Gora eta Behera

### ALOÑAKO GURUTZEA

Aurten, urriaren 13an, Aloñako gurutzeak 100 urte beteko ditu. Hori dela eta, herritar talde bat ospakizunak prestatzen hasia da: dagoeneko egina dute gurutzearen egoerari buruzko diagnostikoa, eta udaberriarekin batera hasiko dira txukuntze lanetan. Gurutzea gauza handia da oñatiarrontzat, eta horrelako ekintzak txalotu beharrean gaude.

### OÑATIKO GERNIKAKO ARBOLA

Ez dago ondo baloratua ezta zaindua ere Oñatiko Gernikako arbola. Bisitariek ez dakite zer den plaza ondoko zuhaitz handi hori; baina, oñatiar askok ere ez dakitela ziur nago. 1917ko otsailaren 2an (Esteban Gomendio alkate zela) landatu zuten zuhaitz honi, plaka edo antzeko bat jartzea ondo legoke eta hori jartzerakoan omenaldi txiki bat egitea.



GOTZON
OSINAGA
Oñatiko
Txistulari
bandakoa

## Koplak

### Aste Santua

Bost eguneko atsedena zan
jende ugariren plana,
Alikanteko eguzkitan zan
ia ia Bergara dana.

Prozesioak nagusi dira
Sevillan eta Granadan,
han ere jende ikaragarri
jai famatua nola dan.

Parisen berriz turista ugari
eta metroak gainezka,
bultzada artean estresatzeak
sortzen dit nahikoa kezka.

Pirinioetara joateko ere
ez dut hotelik bilatu,
beste batean joan behar banaiz
lehenago espabilatu.

Nere gustoa izanagatik
Andaluzira joatea,
kotxe illadan ez dut pasa nahi
bost eguneko tartea.

Lasaitasuna ta atsedena
nola zaila dan kanpuan,
Arantzazura joan beharko naiz
hurrengo Aste Santuan.

KOLDO ALBERDI

Goienkaria
DEBAGOIENEKO ASTEKARIA

ZUZENDARIA: Eneko Azkarate
ERREDAKZIO KONTSEILUA: Edorta Mendieta, Miguel Angel Elkoroberezibar, Josemari Velez de Mendizabal
ADMINISTRAZIOA: Agurtzane Gaintzarain
SAILETAKO ARDURADUNAK: Edu Mendibil (Kirola, Non Zer), Aintzane Irizar (Berri-Zakua), Goio Arana (Diseinua), Gotzon Arzelus (Publizitatea)
PUBLIZITATEA: Arantzazu Lagunilla, Nerea Zallo, Mireia Larrañaga, Natali Martinez
PRODUKZIOA: Iban Arantzabal
HARPIDETZA ETA BANAKETA: Aitziber Langaran
MAKETAZIOA: Goio Arana, Iñaki Iturbe, Alex Azkarate
TESTUEN ZUZENKETA: Sergio Azkarate, Gari Bragado

Goiena Komunikazio Zerbitzuak
LEHENDAKARIA: Estepan Plazaola
ZUZENDARI NAGUSIA: Mikel Irizar

## Podiuma

# Txus Aranburu | ALOÑA MENDI ESKUBALOI TALDEKOA |

**Aloña Mendi KEko senior mutilen eskubaloi taldeak lehen mailarako igoera aldia jokatuko du oraingo astebukarean Coruñan. Txus Aranburuk (29 urte) laugarren urtez zuzentzen duen taldea, ligan, Euskadiko txapelketan, bigarren sailkatu zen, Arrateren atzetik. Orain, igoera lortzeko, Kantabriako Torrelavega, Asturiasko Codema Gijon eta Coruñako Fadesa Oar taldeak gainditu beharko ditu.**



Txus Aranburu laugarren urtez da senior taldeko entrenatzaile.

**Zein asmorekin zoazte lehen maila nazionalerako play-offera?**

Badakigu igoera lortzea zaila izango dela. Lau taldeetako batek bakarrik lortuko du igoera, eta gure asmoa da daukagun guztia ematea eta, ahal den neurrian, play-offaz gozatzea. Hiru partidutan guztia emango dugu, eta ea gauzak ondo irteten zaizkigun. Dena dela, igoera play-offean egotea bakarrik saria da guretako.

**Beste taldeen berri baduzue?**

Gutxi. Kasualitatez, hainbat urtetan Aloña Mendin aritutako Pablo Agirregabiria da Coruñako taldearen entrenatzailea, eta haren bitartez beste bi taldeen berri jakin dut. Lehenbiziko partidua galiziarren aurka izango dugu, eta gure aurretik asturiarrek eta kantabriarrek elkarren aurka jokatuko dute. Orduan ezagutuko ditugu hobeto. Egubakoitzean Coruñako Fadesa Oar taldearen aurka jokatu ondoren, zapatu arratsaldean Codema Gijonen aurka neurtuko ditugu indarrak, eta azken partidua domeka goizean jokatuko dugu, Torrelavegaren aurka. Play-offetan parekotasuna da nagusi eta partidu gehienak azken minututan erabakitzen dira. Bestalde, ez gaude ohituta hiru egunean hiru partidu jokatzera, eta azken partidua fisikoki ondoen dagoen taldeak irabaziko du ziurrenik.

> "Lehen maila nazionalerako play-offean egotea saria da guretako. Ez daukagu igoera lortzeko presiorik"

> "Play-offeko lehenbiziko partidua gakoa izango da. Galiziarrei irabaziko bagenie, edozer gerta liteke"

**Horrelako play-offetan esperientziarik ez izatea ona ala txarra da?**

Ez dakit. Nire ustez, presio handiena etxeko taldeak izango du, eta lehenbiziko partidua izango da gakoa. Galiziarrei irabaziko bagenie, edozer gerta liteke. Ilusioz beteta eta gogo handiz ikusten dut taldea, eta ez daukagu inolako presiorik igoera lortzeko. Gure taldea oso gaztea da. Batez besteko adina 23 urte da eta Francisco Benito kapitaina da jokalaririk beteranoena, 30 urterekin. Igor Korkostegi hegalekoa eta Unai Perosterena zentrala Arrate taldean ibilitakoak dira, eta eurek dute esperientzia handiena. Dena dela, esperientzia faltak ez nau kezkatzen.

**Denboraldi hasieran, espero zenuen horren ondo ibiltzea?**

Edozer gerta zitekeela uste nuen, eta zorionez gauzak primeran joan dira. Hasiera ona izan genuen eta sailkapeneko lehen eta bigarren tokian izan ginen jardunaldi askotan. Gero, Eneko Gonzalez hegalekoaren hutsunearekin nahiko sufritu genuen, eta lau jardunaldi falta zirela hirugarrenak ginen. Bazirudien Ereintza sailkatuko zela, baina huts egin zuen liga amaitzeko bi jardunaldi falta zirela eta aukera aprobetxatu genuen. Azken unearte ez da erabaki gure sailkapena, polita izan da.

**Igoera lortzeak zer ekarriko luke?**

Oñati moduko herri batendako izugarrizko arrakasta litzateke, are eta gehiago taldeko jokalari guztiak herrikoak direla kontuan izanda. Horrek sekulako meritua dauka, gure mailako talde gehienek inguruko herrietatik jokalariak hartzen dihardutelako. Ekonomikoki ere jauzi handia litzateke, Burgos, Madril edo Kanariar Uharteetan jokatuko genukeelako. Orain 1,3 milioi pezetako aurrekontua dugu eta lehen mailarako lau bat milioi beharko genituzke.

EDU MENDIBIL

---

ATZOKO TXAPELDUNAK

## Juan Mari Arantzeta
## Pilotaria



Juan Mari Arantzeta (ezkerrean) eta Migel Etxaniz.

**Gaztetan, Deba arroko txapeldun izan zen**

**1972an debuta egin zuen profesionaletan**

**Aitor Elkororen botileroa da gaur egun**

Juan Mari Arantzeta elgetarrak 1972an egin zuen debuta profesionaletan, Bergaran, Paco Martinez bikote zuela: "Moreno eta Intxaurrondori 18-17 irabazi genien. Empresas Unidas zen enpresa bakarra, eta 1.500 pezeta kobratu nituen debuta egiteagatik". Profesionaletara heldu aurretik, Elgetako Ozkarbi elkartearekin aritu zen. 18 urte zituela, Deba arroko txapelketa irabazi zuen, Berrizko Goiuria lagun zuela. Finalean, Zelaia-Agiriano bikote oñatiarrari irabazi zioten. Urte berean, gazte mailako Gipuzkoako txapelketako finala galdu zuen, Alvaro Gallastegi bergararrarekin, Altuna eta Oreja III.aren aurka. Soldadutza egiten zegoela, Arabako binakako txapelduna ere izan zen.

Profesionaletan urte ugari eman zuen: "asteko egun guztietan partiduak izaten ziren han edo hemen, eta Bergarako pilotalekua lepo egoten zen eguaztenetan eta zapatuetan. Nik bigarren mailan jokatu nuen gehienbat, eta *estelarraren* aurretik edo ondoren jokatzea egokitzen zitzaidan, betiere binakako partiduetan". Bere burua definitzerakoan, zera diosku: "Aurrean jokatzen nuen eta nagusiki errematatzailea nintzen". 27 urterekin buruhauste nahikoa eman zion lesio larria izan zuen eskumako hatz erakuslean, eta lesioa gainditu eta gero eman zituen bere urterik onenak. Hogeita hemeretzi urterekin pilota uztea erabaki zuen.

Pilotan jarraitzen du, Elkororen botileroa da eta: "Pilota asko aldatu da, eta niretako bote handiko pilotak erabiltzen dira, ikuskizunaren kaltetan. Lehen, pilota errebotera bidaltzea albiste izaten zen, eta orain, ia normala da. Gaurko pilotarien artean, banaka, Retegirekin geratzen naiz, eta lagun moduan, Aitorrekin". Elgetan dihardu lanean, masaje emailea da./ E. M.

> ***"Niretako bote handiko pilotak erabiltzen dira gaur egun, ikuskizunaren kaltetan. Lehen, pilota errebotera bidaltzea albiste izaten zen"***



Juan Mari Aranzeta • Elgeta • 1948

---



# Nire Pronostikoa

JABIER CORBAL / Junior mailako Eskoriatzako saskibaloi taldeko entrenatzailea

Eskuz banakako txapelketa ez nabil gertutik jarraitzen, baina nire ustez, Beloki da faborito nagusia, ondo baldin badago, behintzat. Oraingo astebukaerarako faboritoak, berriz, Errasti eta Goñi II.a dira, nahiz eta Barriola eta Rai txapelketa ona egiten ari diren. Futbolean, Realak partidu zaila izango du Las Palmasen, eta zaila ikusten dut handik punturen bat ekartzea. Athletic eta Alaves taldeen arteko partidua parekatua izango da ziurrenik, baina Athleticen jarraitzailea naizenez, euren alde egingo dut. Bada San Mamesen irabazteko ordua...

**Oraingo astebukaerarako partiduak**

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| A/ | Errasti | 22 | Barriola | 16 |
| B/ | Goñi II.a | 22 | Rai | 12 |
| C/ | Las Palmas | 2 | Reala | 0 |
| D/ | Athletic | 2 | Alaves | 1 |

2001EKO HAUTESKUNDE AUTONOMIKOAK



Ibarretxe da baietza

EUSKO ABERTZALEAK

eusko alkartasuna

EAJ PNV

ARAOTZ Merenderua

## Araotz merenderua

Araotz auzoa, 2 / OÑATI
943 78 35 26

**Eskaintza**
- Menua
- Karta
- Garaian garaiko platerrak

**Berezitasunak**
- Etxeko txorizo eta odolosteak
- Aurrez eskatuta bildotsa burduntzian

- **Eguenetik domekara zabalik**

# JATETXE GIDA

## On egin!





## Hilarion jatetxea

Larrea plaza, 5 / ARRASATE
943 77 01 69

**Eskaintza**
- Menua
- Karta
- Plater konbinatuak
- Bataioak
- Jaunartzeak

**Berezitasunak**
- Legatz betea "Hilarion" erara
- Almejak "Hilarion" erara



## Larrinetxe jatetxea

Udala auzoa / ARRASATE
943 79 22 15

**Eskaintza**
- Enkarguz menu bereziak
- Plater konbinatuak eta ogitartekoak egun osoan.

**Berezitasunak**
- Pasta entsalada
- Bildotsa erreta
- Bakailaoa gainerreta
- Etxeko postreak

- **Martitzenetan itxita**



## Leku berri jatetxea

Irimo barrena / ANTZUOLA
943 76 60 94

**Eskaintza**
- Menua eta Karta
- Bataioak eta jaunartzeak
- Kintadak

**Berezitasunak**
- Bakailaoa, kokotxa eta almejekin
- Bildotsa erreta • Txuletak
- Etxeko postreak

- **Astelehen arratsaldetan itxita**



## Ostatu jatetxea

Gudarien bidea, 4 / ELGETA
943 76 80 23

**Eskaintza**
- Menua eta Karta
- Jaunartzeak eta bataioak
- Kintadak

**Berezitasunak**
- Ehiza (Oilagorra, Eperra, Galeperra)
- Entremes beroak
- "Txispa" entsalada
- Buztana



## Panaderokua jatetxea

Salbador kalea, 10 / ELGETA
943 76 82 73

**Eskaintza**
- Menua
- Karta
- Kintadak

**Berezitasunak**
- Asteburu eta jaiegunetan bertako babak saiheski errearekin
- Asteburuko menu berezia

- **Martitzen arratsaldetan itxita**



## Sara merenderua

Kanpazar bidea / ARRASATE
943 77 15 86

**Eskaintza**
- Karta zerbitzua egunero
- Eguneroko menuan aukera zabala
- Jaunartzeak eta bataioak

**Berezitasunak**
- **Arraina:** Bakailaoa laban
  Bogabante entsalada
- Etxeko foie • Etxeko postreak

- **Astelehen arratsaldetan itxita**



## Zabala jatetxea

Ibarra,14 / BERGARA
943 76 42 57

**Eskaintza**
- Menua eta Karta
- Ezkontzak
- Kintadak
- Jaunartzeak

**Berezitasunak**
- Berdura-menestra berezia
- Legatz-kokotea
- Etxeko postreak

# Goienka2a

Egubakoitza / 2001eko apirilaren 27a

Kultura eta Aisialdia

Apirilaren 27tik maiatzaren 4ra




# XAKE MATE

Mugimendu txar bat egitea nahikoa izan liteke besteak eraso egin eta burua ezin altxaturik geratzeko; gehienetan, berriz, hutsegite txiki pilo batek garamatza partida bat galtzera.

Hutsegiteetatik ikasten da xakean eta baita eguneroko bizitzan ere, kontua da, poliki-poliki ikastea, pausoz pauso eta eten barik. Zer gutxiago da, bada, eguneroko bizitza?

Ikasteko modu asko dago: gehiena liburuetan idatzia dago, eta hortik jakin daiteke nola hasi lehenengo pausoak egiten, edozer egin aurretik estrategia nola landu, etsaiari hortzak erakutsi behar bazaizkio halaxe egin, nola aurre egin besteek egindako erasoei, zer egin gure albokoak galtzen ditugunean, zer egin geroago eta lagun gutxiago ditugula konturatzen garenean... azken batean, bizitzaren hainbat alorretan egiten ditugun galderak, kontraesanak, irtenbideak, arazoak taula batean irudika daitezkeela diotenek ez dute arrazoirik falta.

Zaletasuna da batzuendako, artea beste batzuendako, zientzia dela esaten duenik ere bada, eta zenbaitzuek egia bilatzea dute helburu. Gustuko jolas eta joko izatetik, bizitzaren parte izatera heldu da askorendako, eta bizitzak berak dituen on eta txar guztiak taularen gainean konpontzen dituztenek ez dute meriturik falta. Guztiok ikasi beharko genuke zerbait, bada eta ikastekorik. IBAN ARANTZABAL /14

GOIO ARANA

GOIENKARIA
Egubakoitza / 2001eko apirilaren 27a

Zaletasuna | Xakea

# Eguneroko bizitza, xakea; eguneroko ametsa matea

**Zaletasuna ei da, kirola , zientzia dela esaten duenik ere ez da falta, artea, egia... hainbat berba erabili izan dira xakea definitzeko. Esan dezakegu, ordea, xakea gertutik jarraitzen dutenek bizitzeko era moduan hartzen dutela, izateko era bat, esperientziak ulertzeko modua. Azken batean, xakeari eskaintzen zaizkion orduek egiten dute askotan zaletasuna, kirola edo bizitzeko era izatea. Gure bailaran badira xakeari ordu dezente eskaintzen dizkiotenak, xakea bera bizitzaren zati bihurtuz.**

Taula baten gainean xakean jarduteak ordu asko eskatzen ditu eta taulen ondotik aldizkari espezializatuak, ordenagailurako programak, xakearen gaineko liburuak... xakea mundu bat dela frogatzeko daude. Euskal Herrian ez dago profesional askorik, baina Mario Gomez, Felix Izeta eta Rafael Alvarez izan dira gure elkarrizketatuen ahotan. Gure bailaran xakean jokatzetik bizi ez badira ere, xakea gogotik bizi dute. Martin Arriaran bergararra, Luis a. Ortega aramaioarra, Urtzi Zubiate arrasatearra eta Fran Migel aretxabaletarra ez dira bailara honetako lagin txiki bat baino. Joko hau intelektualendako dela uste dutenak asko dira, baina topiko bat baino ez da.

Ez da intelektualen artekolehiaketa hutsa, nahiz eta kanpotik hori iruditu, xakean egia bilatzen dute jokalari askok, bizitzaren erakusleiho moduan ikusten dute. Arriaranek esan digun moduan, eguneroko bizitzako arazoei irtenbideak topatzeko ere balio du. Xakean jokatuta konturatzen zara, esaterako, makroarazoak mikroarazoez osatuta daudela". Konponbidea ere azpitik, atzetik aurrera, eta urratsez urrats eman behar dela konturatzeko balio ei du xakean jokatzeak. Porrotak norberaren erruetatik etortzen dira, eta ezin zaio albokoari norberaren hutsen ardura egotzi. Horrek derrigor izan behar du ikasgai.

Xakean beti ikasten da zerbait. Teorian beti dago zer landua, baita teknikan edo psikologian ere. Perfekzioa bilatzeko, hortaz, asko landu behar, bakarkako ordu asko eta ordenagailuaren kontrako partida ugari. Xakelaria irabazle denean, ondoko guztietatik nabarmentzen da, baina bakardadea beldurgarria da galtzaile gertatzen denean. Dena dela, beti dago irabaztekoa taula baten aurrean, horixe ziurtatu digute, behintzat.

IBAN ARANTZABAL / XABI URTZELAI / IRATXE BENGOA









## Josu Tornay/Arrasate

Tornay katalana 13 urterekin hasi zen xakean jokatzen, osabak irakatsi zion, baina berandu federatu zela dio, 16 urterekin hain justu ere. Gazte mailan Kataluniako txapeldun izan zen, baina Telekomunikabide ikasketak hasi zituenean, xakea alde batera utzi zuen. Orain dela bost urte Arrasatera etorri zen, eta ikusgarria da zein ondo egiten duen euskaraz. Arrasatera etorri zenean, xakean jokatzen hasi zen berriro ere, eta horri esker lagun asko egin dituela adierazi digu. Partida bat galtzen duenean, amorrua sentitzeaz gainera, egunak igaro ditzake partida hori aztertzen, hanka-sartzeak non eta nola egin dituen ikusteko.

## Martin Arriaran/Bergara

Arrasateko taldean dihardu Martinek, hala ere, orain baino ordu gehiago eskainitakoa da. Lehen, lehiaketa moduan hartzen bazuen ere, orain, zaletasuna da, eta hortik haratago ez doala onartu du. Hala ere, oraindik bibliografia asko erabiltzen du eta ikasketa etengabe horretan ordenagailua du lagun. Fisher du gustuko Martinek, baina idoloak maite ez dituen moduan, topikoak ere ez ditu gustuko. Joko burutsua dela esaten dutenean, esaterako, ez du gustuko. Horren aldean, eguneroko bizitzaren arazoak konpontzeko errezeta moduan ikusten du xakea.

## Fran Miguel/Aretxabaleta

Euskadiko xake jokalari onenetakoa da Fran Miguel atxabaltarra. Horixe erakutsi zuen Bazko Astean Araban jokatu zuten Euskadiko xake txapelketan; Euskadiko bosgarrena izan zen. Maila horretara heltzeko urte askotako esperientzia eta entrenamendua behar- beharrezkoak izan dira. Gaur egun denbora larregi ez duen arren, ordenagailu aurrean entrenatzen da, bere iritziz, aurrean ibili gura izanez gero, ezinbestekoa da ordenagailuz ikastea. Aretxabaletako Arlutz A xake taldeko partaidea ere bada. Taldea Euskal ligan dago, eta Franen iritziz ia-ia miraria da hori. Izan ere, maila horretan dagoen herri txiki bakarra da gurea.

## Luis A. Ortega/Lasarte

Karpov maisu handiaren kontra jokatutako xake partida sekulako esperientzia izan zela esan digu, baina ez zen bakarra izan; hau da, hogeita bost lagun batera aritu ziren maisuaren aurka jokatzen, eta Karpovek partida bakarra galdu zuen. Luis Angelendako xakea oso kirol interesgarria da, eta bizitzako hainbat pasartetan aurrera egiteko oso baliagarria ere. Txapelketa handietan, 20 egun irauten duen partida batean, jokalari batek sei kilo gal ditzakeela dio, eta ez dauka duda izpirik ere xakea kirola dela esatean. Oso argi dauka xakearen kontura bizitzea gutxi batzuen eskura dagoela.

Argitalpenak | 'Putz' aldizkaria

# 'Putz'-ik beltzena, zortzigarrena, kalean da

**Kalean da *Putz* aldizkariaren zortzigarren zenbakia. Debagoienetik Euskal Herri osora bi hilabetetik behin banatzen duten aldizkaria inoiz baino beltzago dator, bizi dugun egoera sozio-politiko-kulturalari erreparatuz edo.**

Hala ere, antza, Apokaliftin Kultura Elkartekoek, aldizkariaren argitaratzaileek, ez diote beldurrik etorkizun beltzari, eta horrela aitortu dute: "Guk ondo deritzogu etorkizun beltzari, eta azaleko argazkian gure geroaren beltza irudikatu nahi izan dugu: zuekin, Zabaleta Mangodingotarrak, Zegamako Etxezuri baserrikoak. Gora Euskal Herria beltza!".

Apirila-maiatzeko zenbakian irakur dezakeguna, *Putz*-eko erredaktoreetako bat den Diego Martiartuk azaldu digu: "Etorkizun beltza iragarri ziguten, eta bai etorri ere, ikatza bezain beltz, azken *Putz*-a, zortzigarrena. Azken beltzean, lehendik ere aldizkaria ohitua dugu zehar-begirakune beltzetara. Oraingo zenbakiarekin ere begirakune horiek ez digute huts egingo: batetik, mundua Euskal Herrira biltzeko ahalegin laginak, japoniarren lankidetzaz eginak. Bestetik, atal erotiko-pornografikoan, behi txuletoia, Angiozarreko emakume puska baten haragi puskak airean. Euskal okela, labelduna. Horretaz gain, Gavilan Huajoloteari egindako elkarrizketa luuuze eta pasadizoz josia.

Bestalde, 'Euskaditik gutuna/Home fires' izeneko erreportaje zabala, *New Yorker* magazine amerikarrean duela gutxi argitaratua, itzuli dugu. Jon Lee Andersonek idatzia, Euskal Herriaren gaineko erreportajea da. Paddy Rekalde, Asier Serrano, Balen Tramon, Txitxo Barandiaran, Eneko Barberena, Oihana Zuloaga, Mikel A. Alberdi, Gotzon Arrieta margolaria eta beste makinatxo bat eskribidore, tinta-nahasle eta burukomin eragile sekula santan Euskal Herrian argitaratu den aldizkaririk beltzenean. Eros ezazu agortu baino lehen zure herriko kiosko, taberna edo liburudendan!".

*Putz* aldizkaria 450 pezetaren truke eros dezakezu. Hala ere, urtean 3.000 pezeta ordainduz gero, harpide egin zaitezke eta 6 aldizkari eta liburu bat doan jaso ditzakezu etxean.




### Puntu eta koma etilikoak

**Apokaliftin taldeak Durangoko iazko Liburu eta Disko Azokarako argitaratutako ipuin bilduma da. Paddy Rekalderen ekimenez, *Putz* aldizkariaren kolaboratzaile edo inguruko idazle batzuen lanak bildu zituzten bertan, denera 11 ipuin labur (137 orrialde). Orain, doan eskura dezakezu, Putzen harpidedun eginez gero.**




### Gora Euskal Herria beltza

**Puskatzaile eta zirikatzaile datoz oraingoan ere *Putz*-ekoak. Elkarrizketak (Gavilan Huajolote oilhari eta Gotzon Arrieta pintoreari), erreportajea (Euskal Herriari buruz Estatu Batuetan argitaratua), literatur lanak (Asier Serranoren "Hoteleko kontuak"), lehiaketak, komikiak, bitxikeriak..., aurki ditzakegu azken zenbakian.**

#### Alkoholdun edariak aitzakia

"Puntu eta koma etilikoak", horixe da *Putz*ekoek urtebeteko harpidetza kuota ordaintzeagatik oparitzen duten liburua. Alkoholdun edari bat aitzakia hartu eta ipuin bana idatzi dute 11 idazlek: Asier Zubizarretak, Pako Aristik, Paddy Rekaldek, Asier Serranok, Balendin Tramonek, Diego Martiartuk, Josu Lartategeik, Juan Martin Elexpuruk, Oihana Zuloagak, M.A. Irizarrek eta Manex Agirrek. Liburua iazko abenduan Durangoko Azokarako atera zuten, argitalpenaren lehen urtebetetzean, eta hainbat liburudendatan ere eros dezakezue, aldizkariaren urteko harpidetza kuota ordaintzea ez baduzue nahi.

ENEKO AZKARATE

Nire aukera

## Iñaki Bruña
### Musikari eta margolari arrasatearra



Clarissa Pinkola Estes psikologo estatubatuarraren *Mujeres que corren con los lobos* liburua irakurtzen dihardut. Liburu ederra da oso. Hainbat herritako ipuin tradizionalen analisiaren bidez, emakumearen azterketa ematen digu egileak: inozentzia galtzea, taldea bilatzea, klana, gorputza, barne mundua, harremanak... ia ipuin guztietan agertzen direla erakusten digu. Emakumea senezko gizaki bezala aurkezten du idazleak, horregatik parekatzen du otsoarekin. Nor bere burua ezagutzeko eta garatzeko informazioa eskaintzen du, eta gomendagarria iruditzen zait emakumezko eta gizonezkoondako.

### 'MUJERES QUE CORREN CON LOS LOBOS'
### Clarissa Pinkola Estes




LEIRE KORTABARRIA

## Kaleratu berriak

Iban Arantzabal

LIBURUA | *Narratiba*




**%100 BASQUE**
Itxaro Borda
Susa literatura
[illegible]

Gazta euskal kulturaren edo identitatearen sinbolo dela konturatu da Itxaro Borda. Euskaldun estereotipoaren definizioan, Iparraldeko errealitate soziopolitiko-kultural-linguistikoa deskribatzen digu. Eta horrekin, kritika soziala, ekonomikoa, kulturala, politikoa, filosofikoa eta oro har bestelako kritikak ere egin dizkigu Itxarok.

Gaueko bidaia da *%100 Basque*. Baionatik Maulera astero egiten duen bidea, gaueko ordu txikiak inspiraziogune dituena eta pentsarazle [illegible]

LIBURUA | *Nobela*




**SISIFO MAITE MINEZ**
Laura Mintegi
Txalaparta, 2001
186 orrialde

Denok maitemindu gara noizbait maitasun platonikorik izan ez badugu ere. Eta badakigu maitasunak erotu egiten gaituela. Maitemintzeak muturreko egoeretara eramaten gaitu. Heroitasun handiena eta miserablekeria lardazgarriena egin dezakegu maiteminaren aitzakiaz. Bata zein bestea. Edo bata eta bestea, elkarren segidan, sekuentzia berean. Maitemina, pasioa, desira, gabezia, grina, hutsunea, itxaropena, etsipena. Psikoanalisiaren eta maitasun suharraren bideetan ibilarazten digun liburua.

DISKOA | *Kantuakoa*




**THE PUB IBILTARIA**
Oskorri & the pub ibiltaria V
17 kanta

Herri batek bere kantuetan izaten ei du historiaren zati garrantzitsua, eta *The Pub Ibiltaria* ahalegin horren ondorio da, historia hori batu nahiaren ondorio, hain zuzen. Kantu tradizionalak, nortasuna dutenak, herriaren sufrimendua, gogoak, negarrak eta irriak, ironiak... 17 kantuk denerako ematen dute. Diskoan ateratakoekin 87 kantu batu dituzte, eta hemen ere disko bikoitza: bata, karaoke egiteko moduan prestatua. *Play back*-a egiteaz gain, partiturak eta letren itzulpenekin hornitua.

GOIENKARIA
Egubakoitza / 2001eko apirilaren 27a

# Apirila: 27-4

**Edu Mendibil** | Zuon ekitaldien berri iragarri ahal izateko bidali informazioa eguazteneko eguerdiko 12.00ak baino lehenago • Posta elektronikoa: **erredakzioa@goiena.com** • Tel.: **943 76 03 97** • Faxa: **943 76 29 77**

## Antzerkia

**BERGARA**

> **Juan Tamarizen** *Magia potagia* ikuskizuna datorren egubakoitzean, maiatzak 4, Novedades aretoan, 22:30ean.

**ELORRIO**

> **Txalo produkzioak** taldearen *El hombre que confundió a su mujer con un sombrero*... antzezlana egubakoitzean, hilak 27, Arriola aretoan, 22:30ean.

> **Hortzmuga** taldearen *Badum mundua* umeentzako antzerkia domekan, hilak 29, Arriola aretoan, 17:00etan.

## Musika

**BERGARA**

> **Rage, GB Arts** eta **Vicious Rumors** zapatuan, hilak 28, Jam aretoan, 22:00etan.

> **Andy Chango** eguenean, maiatzak 3, Jam aretoan.

> **Vargas Blues Band** datorren egubakoitzean, maiatzak 4, Jamen.

**OÑATI**

> **Anje Duhalde** egubakoitzean, hilak 27, Gaztelekuan, 22:30ean. Kultur Errotaren programazioaren barruan.

> **Oñatiko musikari gazteen** kontzertua zapatuan, hilak 28, Santa Ana aretoan, 19:15ean.

> **Steve Wynn** datorren egubakoitzean, maiatzak 4, Gaztelekuan, 22:30ean.

**SORALUZE**

> **Petti** eta **Xabier Montoia** zapatuan, hilak 28, Soraluzeko gaztetxean, 22:30ean.

**AZPEITIA**

> **Mikel Urdangarin** egubakoitzean, hilak 27, Soreasu zineman, 22:30ean.

**LEGAZPIA**

> **Tapia eta Leturia laukotea** egubakoitzean, hilak 27, Legazpiko zineman, 22:30ean.

## Erakusketak

**ARRASATE**

> **Jose Ramon Guerra** margolariaren erakusketa Toki Eder kafetegian maiatzean.

**BERGARA**

> **Julian Jimenez** eta **Juan Domenech**en tarazea eta pintura lanak kultura etxean, domekara arte.

> **Aitor Larrañaga**ren pintura lanak apirilaren 30etik maiatzaren 13ra kultura etxean.

**OÑATI**

> **Argazki erakusketa** Gaztelekuan apirilaren 30etik maiatzaren 26ra arte.

**EIBAR**

> **Erakusketa.** *Republikia. 1931-2001* erakusketa, Portalean, apirilaren 30a arte.

**DONOSTIA**

> **Jon Balentziaga** margolari bergararraren erakusketa Donostiako Txapasta kafetegian (Igentea kalean) maiatzaren 13a arte.

## Lehiaketak

**BERGARA**

> **IV. Abdon Juaristi pintura lehiaketa.** Lehiaketan, nahi duten artista guztiek parte hartu ahal izango dute, eta partaide bakoitzak, gehienez, hiru lan aurkeztu ahal izango ditu. Kartelen gaia *Zezenak Bergaran* izango da, eta lanek Bergarako motibo bat edukitzea beharrezkoa izango da. Neurria: 55x46 zentimetro, gutxienez, eta 146x114 zentimetro, gehienez. Lanak Bergarako kultura etxean aurkeztu beharko dira, astelehenetik egubakoitzera, 2001eko maiatzaren 3a eta 10a bitartean, biak barne, 16:00etatik 21:00etara bitartean. Irabazleak 150.000 pezeta eta plaka eskuratuko ditu. Sari banaketa 2001eko maiatzaren 19an egingo da, zezenketako kartelaren aurkezpen ekitaldian.

> **Pentekoste jaietako kartel lehiaketa.** Lanak entregatzeko epea maiatzaren 2an bukatuko da. Argibideak Kultura Etxean, 943 77 91 58 zenbakian.

> **Pegatina lehiaketa** deitu du Jardun elkarteak Bazkoetarako. Asmatutako esaldiak ikastetxeetan eta tabernetan lagatako kaxetan utz ditzakezue maiatzaren 10era arte. Irabazleak 10.000 pezetako saria jasoko du.

**OÑATI**

> **II. Oñati Hiria literatura sariak.** 18 urtetik gorako edonork har dezake parte.Lan guztiek euskaraz eta argitaragabeak izan beharko dute. Pertsona batek lan bakarra aurkeztu ahal izango du modalitate bakoitzean (ipuina, olerkia eta bertso-paperak). Lanak entregatzeko epea maiatzaren 11n bukatuko da. Argibide gehiago Oñatiko Udaleko euskara edo kultura zerbitzuetan.

**AZPEITIA**

> **Kartel lehiaketa.** Euskal antzerki topaketaren XIX. ekitaldia dela eta, Azpeitiko Udalak kartel lehiaketa deitu du. Lehiaketan esku hartzeko mugaeguna: apirilaren 30a. Edozeinek parte har dezake, gehienez hiru lan aurkeztuz; lanak argitaratu barikoak izan beharko dira. Irabazleak 150.000 pezeta jasoko ditu. Argibide gehiago 943 15 72 00 telefonoan.

**DONOSTIA**

> **Euskal Herriko Bertsolari Txapelketako kartel lehiaketa.** Kartelaren esaldia: *Hitza informazioaren gizartean.* Edozein estilo eta teknika erabiliz eginiko lan guztiak onartuko dira. Kartelaren formatua 50x70 cm-koa izango da. Irabazleak 250.000 pezetako saria eskuratuko du. Lanak aurkezteko epea maiatzaren 25ean bukatuko da. Argibideak 943 21 77 98 telefono zenbakian.

## Ikastaroak

**ARRASATE**

> **Argazkigintza** eta **bio-dantza ikastaroak** (hastapen maila biak) antolatu ditu Udaleko gazteria sailak. Argazkigintzakoa (hastapen maila) maiatzaren 5etik aurrera izango da, zapatu goizetan, 10:30etik 13:30era. Bio-dantza ikastaroa maiatzeko zapatuetan, arratsaldez. Izena ematea eta argibideak Gazte Bulegoan, 943 77 00 65 telefonoan.

**ARETXABALETA**

> **Gorputz adierazpena, dantza eta joko kontzientearen** gaineko ikastaroa apirilaren 28an, maiatzaren 26an eta ekainaren 23an, 16:30etik 20:30era. Ikastaroko zuzendaria Maria Morera izango da. Zainduz gimnasioak antolatuta.

**BERGARA**

> **Nutrizioari buruzko ikastaroa** maiatzaren 2tik ekainaren 7ra, Jardun elkarteak antolatuta. Argibideak 943 76 08 19 telefono zenbakian.

## Deiak

**ARRASATE**

> **Alzheimer** inguruko informazio jardunaldiak maiatzaren 2tik aurrera Monterron jauregian, 16:00etan. Afagi elkarteak eta Aita Mennik antolatuta.

**BERGARA**

> **Hitzaldia.** Deba Arroko euskalkia aztertzen ari den *Badihardugu* taldearen eskutik. Eguaztenean, maiatzak 2, Kultura Etxean, 19:00etan.

> **Xipizaro ludoteka.** Uztaileko udaleku irekietarako izena emateko epea maiatzaren 5era arte izango da zabalik, 10:00etatik 12:00etara. Udalekuak haur hezkuntzako lehenengo mailatik DBHko 2. maila arteko umeendako dira. Plaza mugatuak. Bestalde, udalekuetan begirale izateko izena emateko epea maiatzaren 7tik 18ra izango da, 17:15etik 19:30era. 18 urte izatea beharrezkoa da. 943 76 23 76 .

> **Gaztetxea**. Big Lie Tour 2000/01. Zapatuan, hilak 28,euskal film laburren emanaldia 18:00etan, poesia emanaldia 20:00etan, eta gauean, 23:00etan, Golpe de estado taldea eta DJ Kirrin. Astelehenean, hilak 30, Gaztetxeko I Mus Txapelketa 16:30ean, 19:30ean poteoa gaztetxetik hasita, eta gauean, 21:00etan, afaria (txartelak 700 pezetan salgai) eta Triki ta Ke taldea.

> **Zezenzaleak**. Maiatzaren 5ean Calahorrara irteera egingo du taldeak, Finca del Tio Simon izeneko ganadutegia ikustera. Izena ematea Ganbara tabernan maiatzaren 3a baino lehen.

> **Gazte Informazio Guneak** jakinarazi du maiatzaren 7ra arte zabalik izango dela trukaketen zozketan izena emateko epea, 1984tik 87ra bitartean jaiotakoentzat. Argibideak: 943 77 91 57.

> **Hitzaldia:** *El caserio en Bergara desde el siglo XVI al XX*. Hizlaria: Alberto Santana historialaria. Eguaztenean, maiatzak 3, Miguel Altuna institutuan, 19:30ean. San Joxepe elkarteak antolatuta.

> **Hitzaldia:** Gestorak-ek antolatutako hitzaldia eguenean, maiatzak 3, gaztetxean, 19:00etan. Hizlaria: Iñigo Elkoro.

> **Mendi ibilaldia.** Abiadura Handiko Trenari STOP-Elkarlanean




JAIAK

### OÑATIKO OLABARRIETA AUZOKO JAIAK

Oraingo astebukaeran Oñatiko Olabarrieta auzoan jaiak ospatuko dira. Zapatu goizean krosa jokatuko da eta arratsaldean haurrentzako jolasak izango dira. Gauerako, berriz, auzo afaria iragarri da. Afalostean Laiotz taldeak alaitutako erromeria egongo da eta, goizaldean, txokolatada eta txerri harrapaketa. Domekan, goizeko 10etan meza izango da eta ondoren mendi bizikleta ibilaldia. Arratsaldean mus txapelketa jokatuko da, 16:30ean. Bukatzeko, maiatzaren 1ean, meza nagusia eguerdiko 12etan eta ondoren, luntxa.



BASALORE EKODENDA

Zarugalde kalea, 8 • ARRASATE • Tel./Faxa: 943 79 56 38

*Aukera biologikoa*

**Fitoterapia naturista, TMT (Txinatar medikuntza)**
LORENZO M. JOSSTEN

**Medikuntza tibetar naturala**
SEWAN DADUL

**Erretzeari uzteko metodoa**
BIORRESONANTZIA

**Argaltzeko metodo naturala**
TECNILINE OBEACTIVE

**Galdetu konpromisorik gabe**



# Bigarren eskuko autoa erosi nahi duzula?

Datorren astean **Goienkaria** n

# Denauto

Bigarren eskuko autoak eta zerbitzuak



## JAIOTAKOAK

**Naia Pascual Fernandez de Jauregi**
Eskoriatzan, martxoaren 18an.

**Adrian Vide Lopez**
Eskoriatzan, martxoaren 23an.

**Markel Laskurain Arrese-Igor**
Bergaran, apirilaren 1ean.

**Janire Gonzalez Pineda**
Bergaran, apirilaren 2an.

**Julen Murgiondo Izagirre**
Bergaran, apirilaren 4an.

**Ioritz Astaburua Zabalo**
Arrasaten, apirilaren 5ean.

**Eider Calleja Zabala**
Arrasaten, apirilaren 5ean.

**Jon Irureta Barrena**
Bergaran, apirilaren 6an.

**Oier Bideluze Legorburu**
Antzuolan, apirilaren 6an.

**Ane Martin Pineda**
Bergaran, apirilaren 7an.

**Jonathan Martin Hidalgo**
Oñatin, apirilaren 7an.

**Jon Nogales Hernandez**
Arrasaten, apirilaren 7an.

**Asier Lopez Soto**
Bergaran, apirilaren 9an.

**Aitor Sanchez Alonso**
Aretxabaletan, apirilaren 9an.

**Oier Perez de Arenaza Inza**
Oñatin, apirilaren 10ean.

**Maria Edroso Rueda**
Bergaran, apirilaren 10ean.

**Ander Garcia Garcia**
Bergaran, apirilaren 11n.

**Markel Benito Sendin**
Arrasaten, apirilaren 11n.

**Lide Burunza Etxaniz**
Antzuolan, apirilaren 12an.

**Beñat Basabe Arkauz**
Aretxabaletan, apirilaren 13an.

**Anne Zengotita Albisua**
Bergaran, apirilaren 15ean.

**Alaitz Ortueta del Fresno**
Eskoriatzan, apirilaren 16an.

**Amaiur Eraña Iparragirre**
Eskoriatzan, apirilaren 18an.

**Peru Atxa Marañon**
Arrasaten, apirilaren 19an.

**Alex-Ander Arenaza Diez**
Bergaran, apirilaren 21ean.

**Danel Sarasua Gonzalez**
Aretxabaletan, apirilaren 21ean.

**Laura Igartua Vazquez**
Aretxabaletan, apirilaren 22an.

## HILDAKOAK

**Dorita Etxeberria Matxintoa**
Oñatin, apirilaren 24an,
90 urte zituela.

**Ciriaca Sarasua Illarramendi**
Elgetan, apirilaren 19an,
94 urte zituela.

**Luisa Zeziaga Ugarteburu**
Bergaran, apirilaren 19an,
90 urte zituela.

**Justina Garro Uribarren**
Arrasaten, apirilaren 20an,
96 urte zituela.

**Rufina De Pedro Capilla**
Arrasaten, apirilaren 21ean,
78 urte zituela.

**Luisa Pino Barbero**
Bergaran, apirilaren 21ean,
93 urte zituela.

**Timotea Albisua Zangitu**
Bergaran, apirilaren 24an,
83 urte zituela.

## EZKONDUAK

**Jose Andres Garro Aranegi** eta **Miren Izaskun Arana Zubizarreta,**
Arrasaten, apirilaren 7an.

**Josu Zabala Arbulu** eta **Leire Madariaga de Pedro,**
Bergaran, apirilaren 21ean.

**Mikel Zufiria Eizmendi** eta **Ainhoa Aranguren Fernandez,**
Antzuolan, apirilaren 21ean.

**Pedro Mena Moreno** eta **Ana Paula Silva Do Egito,**
Arrasaten, apirilaren 21ean.



**Ander Murillo Astigarraga** amarekin, **Susana**rekin, oñatiarrak biak. Ander apirilaren 22an jaio zen, eta 3,170 kilo pisatu zuen. **Pedro** da aita, bergararra.



**Alex Arenaza Diez** bergararra eta **Ana** ama, gasteiztarra. Alex apirilaren 21ean jaio zen, eta 3,120 kilo pisatu zuen. **Oskar** da aita, bergararra.



**Beñat Rodriguez Garcia** eta **Mari** ama, oñatiarrak biak. Beñat apirilaren 22an jaio zen, eta 3,080 kilo pisatu zuen. **Joakin** da aita, oñatiarra bera ere.

**Zure lagun edo senitartekoren bat ezkontzekotan badago eta zoriondu nahi baduzu, hemen duzu aukera. Ekarri bikotearen argazki bat *Goienkaria*ko erredakziora edo egoitza hauetara: *Aretxagazeta* eta *Arrasate Press*eko egoitzetara.**



Eskela, urteurren meza edo eskertzarik jarri nahi baduzu, etor zaitez *Goienkaria*ren ordezkaritzetako batera.

BERGARAN,
*Berrigara*ren egoitzan, Barrenkalea, 33
943 76 92 71 (*Goienkaria*)

ARRASATEN,
ARKOren egoitzan, Otalora Lizentziaduna, 31
943 71 25 11

ARETXABALETAN,
*Aretxagazeta*ren egoitzan, Durana, 11
943 79 86 21

ARAMAION,
Kintelena dendan, Nardeaga, 11
945 44 50 22

ELGETAN,
Mari Asun Agirre dendan, Salbador, 26
943 76 81 90

ANTZUOLAN, Itzar liburu-dendan, Kalebarren, 1
943 76 60 62

**Goienkaria,**
bailarako hedabide nagusia.

Astero 20.000 etxetan.
Prezioa: 10.000 pezeta.

## Hitz gezidunak

Luma



- Pena-garria
- 2000an
- Portu
- Emakume dotoreak
- Infusio mota
- Elizkizun mota
- Azala
- Arabarra
- Behar
- Iodoa
- Ireki
- Nafarroako herria
- Urkabe
- Herrietako agintari nagusiak
- Argazkiko herria
- Arrasto
- 11. eta 12. kontso.
- Tema
- Ebaki sakonak
- ... egin, begiratu
- Gipuzkoako herria
- Hegazti mota
- Hizki grekoa
- Bokala
- Interjekzioa
- Zuberoako herrixka
- Baldintzetan
- Edari alkoholdun
- Burdinola
- Poesia mota
- Txinako iraultzailea
- Oxigenoa
- ... irten, zauririk gabe

## Bila-bila 7







## Umore giroan

Iñigo Almortza

**AUTOBUSAK**

Franco hil ostean, euskeria apurka-apurka berreskuratzen hasi zuan. Kaleko ikurrak, txartelak eta beste hainbat gauza, euskeraz jartzen hasi zitxuan. Antzuolako autobus geltokixan be txartel berrixa jarri juen: "Autobuses, mañana y tarde". Eta azpixan: "Autobusak, bihar eta berandu".

**BI AITAGURE**

Oinguan be jun da mutikua negar baten etxera eta...

- Zer pasatzen jak ba motel?

- Eskolan bi aitagure errezatzeko esan doste.

- Eta, zergatik ez dok ba errezatu?

- Nik bakarra dakitx eta...

**AMA AMA!**

Juten dok mutikua negarrez etxera eta, oinguan amarengana:

- Ama, ama, eskolan tonto esaten doste.

- Eta neri zer...

- Zuri, txotxola!

**EKUA**

Mutikua aitxagana jun dok:

- Aitxa, aitxa, zer da ekua?

- Ekua?, hire amari erantzuten atrebitzen doken bakarra.

## Ezetz asmatu!

Estepan Plazaola



### Zein urtetan izan zen inmigraziorik handiena Espainiako Estatutik Debagoienera?

Aurreko mendean, jende asko etorri da estatuko hainbat herrialdetatik, batez ere Extremaduratik, Gaztela-Leondik eta Andaluziatik, Euskal Herrira. Geure bailarara ere etorkin asko etorri ziren garai batean, batez ere herri handienetara eta industria gune handienetera. Baina, jakingo zenuke zein urtetan izan zen inmigraziorik handiena Debagoienera?

- 1956-61
- 1961-65
- 1966-70

**Erantzun zuzena:** 1961-65: 3.545 eta 1966-70: 3.543.

## Soluzioak



| | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | • | T | • | I | • |
| | | | D | A | M | A | K |
| | | | • | M | E | Z | A |
| • | B | • | L | A | N | • | I |
| Z | A | B | A | L | D | U | • |
| • | B | E | R | G | A | R | A |
| M | A | R | R | A | • | K | L |
| • | Z | A | U | R | I | A | K |
| S | O | • | A | R | A | M | A |
| • | R | O | • | I | • | E | T |
| I | R | I | B | A | R | N | E |
| • | O | L | A | • | O | D | A |
| M | A | O | • | O | N | I | K |

## Horoskopoa

Berenize

**ARIES**
*martxoak 21-apirilak 21*

Bilatu laguntza behar duzunean. Galdetu, informa zaitez, mugi behingoz, horrela bakarrik lortuko duzu-eta zure asmoak gauzatzeko behar dituzun kideak.

**TAURUS**
*apirilak 22-maiatzak 21*

Harrapa eguna, zure bizitzan aro berri bat hasiko da eta. Kontratu onak sinatzeko aukera.

**GEMINI**
*maiatzak 22-ekainak 21*

Zure ideiak sendotzeko une egokia. Eraginkortasuna eta antolaketa izango dira zure armarik garrantzitsuenak.

**CANCER**
*ekainak 22-uztailak 22*

Lanean zure beharrak eta ideiak jakinarazteko aukera izango duzu, eta oraingoz emaitzarik ikusiko ez duzun arren, lasai, helduko dira eta.

**LEO**
*uztailak 23-abuztuak 22*

Berba egin eta komunikatzeko irrikitan zaude, baina zuhurra izan behar duzu eta ezinegonari heldu, oraingoz ez dago horretarako unea.

**VIRGO**
*abuztuak 23-irailak 22*

Orain arte egin duzuna jakinarazteko unea da, besteek zure asmoak ondo hartu eta gauzatuko baitituzte.

**LIBRA**
*irailak 23-urriak 22*

Kontuz zure bazkide berriekin, ez hartu edonor. Ondo dago gauzak egiteko duzun gogoa, baina ahalegindu besteei zure irizpideak ez inposatzen.

**SCORPIUS**
*urriak 23-azaroak 22*

Zaindu zure erreakzioak, eta familian amorraraziko zaituzten egoerak agertu arren, zaude lasai.

**SAGITTARIUS**
*azaroak 23-abenduak 21*

Ez ezazu egin ezer ere ez aurretik galdetu barik. Adi inguruan daukazunarekin, aukera ederrak agertuko zaizkizu eta.

**CAPRICORNUS**
*abenduak 22-urtarrilak 20*

Daukazunaren eta nahi duzunaren arteko oreka aurkituko duzu. Bilatu harreman egokiak.

**AQUARIUS**
*urtarrilak 21-otsailak 20*

Zalantzak ez dira izango zure segurtasun ezaren ondorio, baizik eta egin behar duzuna egin behar duzula onartzeak ematen dizun beldurraren ondorio.

**PISCIS**
*otsailak 21-martxoak 20*

Ez zaitez betiko jarreran geratu eta atera etekina enpatiarako duzun gaitasunetik.

Gipuzkoako Astrologi Elkartea

# Goiena Telebista

Posta elektronikoa: **goitb@goiena.com**

## Telebegi

### *Magnetos-kopioak*

Ez duzue, bada, pentsatuko Carlos Urquijok Euskal Telebistako trikiti jaialdiak ikusten dituela? Nik ez dut uste. Aspalditik gaude hauteskunde kanpainan, eta medioak, telebista, sekula baino gehiago zaintzen dira. Kontua zera da, norbaitek, edo norbaitzuek, oso lan zikina hartu dutela: Urquijok etsaitzat duen telebistaren programazioa jarraitu, eta buelta batzuk eman ondoren, ea zukurik atera dakiokeen! Eta abertzaletasun usainik badauka, hobeto! Edozein gauza erabil daiteke. Haur programazioa, albistegiak... eta azkena, ia barregarria, trikiti jaialdiak! Ondo grabatuta gelditzen dira guztiak. Maltzetari egindako omenaldian, trikitilariren batek Pepe Rei aipatu-edo egin zuen, eta hori nahiko bekatu da azalpen eske hasteko. Zentsurarekin lan egitea gogorra izango da kazetariarendako, autozentsura ei dakar-eta. Baina, batean eta bestean, magnetoskopioak zorrotz eta gelditu barik lanean dabiltzala jakinda behar egitea, ez da erosoa. Hauteskunde kanpaina honek badu berezitasun bat. Alderdi politikoek ez eze, medioek eurek ere luparekin jarraitzen dutela gainetiko hedabideen lana. Beti inorena salatzen. Gehiago esango nuke: jarraipena alderdi politikoek egin, eta ondoren norberaren aldeko medioek argitaratzen dutela. *ABC*k eta *El Mundo*k ETBren edukiak; *El País*ek TVEren denbora banaketa; Tele 5ek ETBren albiste eta erreportajeak... Kate pribatuak libre gelditzen dira.



Unai Loidi

## GOITB kiroletan

Domeka, 12:00etan

### Aloña-UDA derbia

Zapatuan, Aloña Mendi eta UDA aurrez aurre izango ditugu Azkoagain futbol zelaian, 17:00etatik aurrera. Duda barik, beti izan dute derbiek xarma berezia, eta oraingoan, bereziki, Aloña Mendi taldearendako hiru puntuak oso garrantzitsuak izango lirateke, liderrarekiko aldea murrizteko. UDA taldea, berriz, liga amaitzeko bost jardunaldi falta direnean, sailkapenari begira ez du ezer lortzeko aukerarik. Goiena Telebistak domeka eguerdian eskainiko dizue partidua. Esatari lanetan, *Kontzejupetik* aldizkariko zuzendari Iñigo Arregi oñatiarra izango dugu.

## Alkatearekin berbetan

Eguaztena, 21:05ean

### Mireia Unamuno geurean



Datorren eguaztenean, Mireia Unamuno Antzuolako alkatearekin solasaldia egingo dugu GOITBn. Mireia da Debagoieneko emakumezko alkate bakarra. Berarekin batera, Antzuolako beste bi kazetari izango dira. Hainbat gai landuko ditugu eguazteneko *Alkatearekin Berbetan* saioan. Besteak beste, Antzuolako Udalean onartu berri dituzten aurrekontuez, garraio publikoaz, igerilekuen proiektuaz eta Beasain-Durango autobideak antzuolarrengan sortutako haserreaz berba egingo dugu. Saioa Ojanguren kazetariak gidatu eta aurkeztuta.

## Sarrera doan

Eguena, 21:05ean

### Ikusmiran Araotzera

Oraingo astean ere, Debagoieneko kultura hitzordu guztiez informatuko dizuete Amagoia Lasagabasterrek. *Sarrera doan*ek plana egingo dizue, asteburuan aspertzeko betarik izan ez dezazuen. Zinema estreinaldiak, kontzertuak, antzerkiak eta musikaren gaineko azken berritasun guztiez gozatzeko aukera izango duzue. Halaber, urte askoan kontrabandisten gotorleku izandako Araotz auzoa ezagutuko duzue. Gogora ezazue saioa eguenean ikusi ez duenak baduela asteburuan ikusteko aukera, 13:30ean. *Sarrera doan*en ondoren, berriz, Haika Aizpuruak azken bideo musikalak aurkeztuko ditu *Soinuz blai*n.

GOITB Goiena Telebista

## Asteko programazioa / Apirila 27-Maiatza 3

| EGUBAKOITZA 27 | ZAPATUA 28 | DOMEKA 29 | ASTELEHENA 30 | MARTITZENA 1 | EGUAZTENA 2 | EGUENA 3 |
|---|---|---|---|---|---|---|
| 13:30 **Albiste aurrerapena**<br>13:40 **Gatza eta berakatza**<br>13:50 **Sarrera doan** (errepikapena)<br>20:00/20:30: **Berriak**<br>20:30 **Non-zer**<br>20:35 **Berriak**<br>21:05 **Soinuz blai** | 13:30 **Saioen errepikapena** *Gatza eta berakatza, Aurrez aurre, Mahaiaren bueltan Sarrera doan, Soinuz blai,* | 12:00 **Futbola: Aloña Mendi - UDA**<br>13:30 **Saioen errepikapena** *Gatza eta berakatza, Aurrez aurre, Mahaiaren bueltan Sarrera doan, Soinuz blai,* | 13:30 **Albiste aurrerapena**<br>13:40 **Gatza eta berakatza**<br>13:50 **Futbola: Aloña Mendi - UDA**<br>19:45 **Gatza eta berakatza**<br>20:00 **Berriak**<br>20:30 **Non-zer**<br>20:35 **Berriak**<br>21:05 **Goienasport** | 13:30 **Albiste aurrerapena**<br>13:40 **Gatza eta berakatza**<br>13:50 **Goienasport**<br>19:45 **Gatza eta berakatza**<br>20:00 **Berriak**<br>20:30 **Non-zer**<br>20:35 **Berriak**<br>21:05 **Xeleberri** | 13:30 **Albiste aurrerapena**<br>13:40 **Gatza eta berakatza**<br>13:50 **Xeleberri**<br>19:45 **Gatza eta berakatza**<br>20:00 **Berriak**<br>20:30 **Non-zer**<br>20:35 **Berriak**<br>21:05 **Alkatearekin berbetan** | 13:30 **Albiste aurrerapena**<br>13:40 **Gatza eta berakatza**<br>13:50 **Alkatearekin berbetan**<br>19:45 **Gatza eta berakatza**<br>20:00 **Berriak**<br>20:30 **Non-zer**<br>20:35 **Berriak**<br>21:05 **Sarrera doan**<br>21:05 **Soinuz blai** |

## Barruko kontuak

### ITXURA BERRITUA

Udaberriarekin batera, GOITBk ere soinekoa aldatu du. Jadanik batzuk konturatuko zineten zenbait saio itxuraldatuta agertu direla oraingo astean. *Berriak* eta *Goienasport* saioetako dekoratuak berritu egin ditugu, itxura moderno eta berritzailea lortzeko asmoz. Hala ere, oraindik ere lanean dihardugu, eta datorren astean beste hainbat saiok dekoratua estreinatuko dute.

### HAUTESKUNDEAK

Hauteskundeak ate joka ditugu eta horiek ere izango dute tokia gure telebistan; izan ere, maiatzaren 2an hasita, alderdi politiko ezberdinetako hautagaiak izango ditugu geurean egunero. Albistegietako azken txanpan, Maider Osak politikari bat elkarrizketatuko du. Alderdi guztiak igaro eta gero, maiatzaren 10ean alderdi politikoetako ordezkariak batuko ditugu mahaiaren bueltan, *Goibegirada* saioan.

## Kamera aurrean



*"Merezi du Antzuola moduko herri batek pilotari bat finalean izatea"*

**HARITZ BERRAONDO** | Pilotaria
"GOIENASPORT" (2001-04-23)



*"Garbiketa sektoreko hitzarmen kolektiboan patronalak tranpa egin du"*

**LEIRE TXAKARTEGI** | ELA
"BERRIAK" (2001-04-24)


arrasate
aretxabaleta
INSTITUTUA
Zure etorkizunerako biderik onena
Hezkuntza Eskaintza
Batxilergoak
· Natur eta Osasun Zientzien Batxilergoa
· Giza eta Gizarte Zientzien Batxilergoa
· Batxilergo Teknologikoa
A eta D Ereduak
Erdi Mailako Heziketa Zikloak
· Ibilgailuen Elektromekanika
· Kontsumorako Ekipo Elektronikoak
· Soldadura eta Galdaragintza
· Mekanizazioa
· Erizaintzako Laguntza Osagarriak
D Eredua
Goi Mailako Heziketa Zikloak
· Fundizio eta Pulbimetalurgia Bidezko Produkzioa
· Metal Eraikuntzak
A eta D Ereduak
Aurrematrikulazioa Batxilergotan
Maiatzaren 2tik 11ra
Goizeko 9:00etatik 17:00etara
(Ostiraletan 9:00etatik 14:00etara)
Aurrematrikulazioa Zikloetan
Ekainaren 1tik 12ra
Goizeko 9:00etatik 17:00etara
(Ostiraletan 9:00etatik 14:00etara)
Sta. Teresa, 25
Tel: 943 79 83 00 • 79 44 47
Faxa: 943 79 44 37
20500 ARRASATE
Etxebarri auzoa, z/g
Tel: 943 79 79 00 • 79 79 43
Faxa: 943 77 09 55
20550 ARETXABALETA

**Goienkaria**
DEBAGOIENEKO ASTEKARIA

**Argitaratzailea:** Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkartea • Nafarroa etorbidea, z/g • 20500 Arrasate
**Egoitza nagusia:** **BERGARA** 20570 Barrenkalea, 33 • 132 postakutxatila • Tel.: 943 76 92 71 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta-e: goienkaria@goiena.com
**Ordezkaritzak:** **Arrasate** 20500 Otalora Lizentziaduna, 31 • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89 • Posta-e: arrasatepress@euskalnet.net
**Aretxabaleta** 20550 Durana, 11 • 151 postakutxatila • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54 • Posta-e: aretxagazeta@euskalnet.net
**Publizitatea:** **Arrasate** 20500 Nafarroa etorbidea, z/g • Tel.: 943 79 21 00 • Faxa: 943 79 22 93 • Posta-e: publi@goiena.com.
**Lege Gordailua:** NA-3329/2000 • **ISSN:** 1577-1210 • **Tirada:** 20.000 ale.

Goiena Komunikazio Zerbitzuak

EGUBAKOITZA, 2001eko apirilaren 27a

*Atzeskua*

MAIDER OSA

# Mikel Zubizarreta/Helikoptero pilotua

**Zer dela eta helikoptero pilotu?**

— Betidanik gustatu izan zait hegaz egitea, eta mutikotan beti begiratzen nuen zerura. Parapentearekin hasi nintzen, 1986an-edo, eta 1991n helikopteroa hartu nuen. Huelvara joan nintzen, Euskadin ez baitago ezer. Han pilotu pribatuko titulua atera nuen, eta komertzial titulua ateratzeko Portugalera jo nuen.

**— Eta zein da bien arteko desberdintasuna?**

— Pilotu pribatu tituluarekin helikopteroa erosi edo konpainia bateko helikopteroa gida dezakezu. Kasu horretan, zaletasun baten antzerakoa da hegaz egitea. Pilotu komertzialak, berriz, egiten duen lanaren truke jaso dezake soldata.

**— Airean zaudela, ez duzu bertigorik sentitzen?**

Ez. Ezagutzen ditut pilotuak altuerari beldurra diotenak, eta galdetu izan diedanean arazo hori nola konpontzen duten, esan didate ez dutela behera begiratzen. Niri, aldiz, airean nagoela, gustatu egiten zait behera begiratzea.

**— Oso desberdina da hegazkina edo helikopteroa pilotatzea?**

— Ez dute bata bestearekin inolako loturarik. Bakoitzerako lizentzia konkretua behar da. Gidatzen duen helikoptero mota bakoitzeko, baimen berezi bat ematen diote pilotuari. Dirua ateratzeko modua da, azterketa eta baimena ordaindu egin behar dira eta.

**— Hegazkinak gidatzea duzu helburu?**

— Ez. Bata eta bestearen hegaldiek ez dute inolako zerikusirik. Jeneralean, alderantziz izaten da. Hegazkinetako pilotuak helikopteroak gidatzera igarotzen dira sarri, askoz ere politagoa delako. Hegazkinetan pilotu automatikoarekin egiten dute lan, eta hortaz, ez dute hegaz egitearen sentsazioa hain gertutik ezagutzen.

**— Zertan oinarritzen da zure lana?**

— Suteak itzaltzen aritzen naiz. Jendearekin aireratzen naiz, mendian uzten ditut, urez betetzen dut helikopteroa, suaren gainera botatzen dut ura...

**— Batez ere, udan egingo duzu lan gehien...**

— Halaxe da. Nik Andaluzian egin dut lan gehien, eta baita Galizian ere, galiziarrak oso piromanoak dira eta. Hara joandakoan baieztatu nuen hori, helikopteroa aireratu eta hegaldiko 20-30 sute ikustean.

**— Zer sentitu zenuen lehenengo aldiz helikopteroa hartu zenuenean?**

— Helikopteroan sartzean pentsatzen den lehenengo gauza da norberak ez duela balio pilotu izateko. Politena da irakasleak norbera bakarrik gidatzeko gai dela uste duenean; helikopteroan bakarrik uzten zaitu, eta bizipen hori izugarria da.



**"Andaluzian eta Galizian egin dut lan gehien; galiziarrak oso piromanoak dira"**

**"Hegazkinetako pilotuak helikopteroak gidatzera igarotzen dira sarri, askoz ere politagoa delako"**

**"Helikopteroan sartzean pentsatzen den lehenengo gauza da norberak ez duela balio"**

► *Mondragoetarra / 37 urte / Helikoptero pilotua*

## AIPAGARRI



**IMANOL BARRENETXEA-ARANDO**
**Mondragoe / Euskalaneko lehendakaria**

Lan arloan euskararen erabilera bultzatzeko lanean diharduen Euskalan elkarteak lehendakari berria aukeratu berri du azken batzar nagusian. Urteetan zuzendaritza batzordean aritu den Imanol Barrenetxea-Arandok hartu dio lekukoa Joxe Ramon Elorzari.



**MONIKA MUÑOZ**
**Oñati / Ile apaintzailea**

Emakumezkoen Ile apaintzaileen IX. Gipuzkoako Txapelketa jokatu zuten domekan Kursaalen, eta Debagoieneko ile apaintzaileak primeran aritu ziren. Sari nagusia Oñatiko Iratxo ile apaindegiko Monika Muñozek irabazi zuen. Ikasleen artean, berriz, Maider Azkarate bergararrak (Amparo ile-paindegikoa) irabazi zuen bigarren saria, eta baita orrazkera abangoardistarena ere.

Oñatiko Institutua

AURREMATRIKULA Maiatzak 2-11

Zikloak

Mekanizazioa

Natur ingurunean gorputz eta kirol-ekintzak gidatzea

Makina eta lineen instalazio eta mantenimendua BERRIA

Gizarte eta kultur animazioa

Teknologikoa

Natur eta osasun zientziak

Giza eta gizarte zientziak

Batxilergoak





INFORMAZIO BULEGOAK:
ZUAZOLA IKASTETXEA, Aita Madina z/g
LARRAÑA IKASTETXEA, San Lorentzo z/g
TLFAK.:943 78 21 50 - 943 78 12 68
www.ikaslan.hezitek.net
E-mail: 013015aa@hezkuntza.net